#177
DOAN

2023 · 03 · 15
WWW.AIARALDEA.EUS

AIARALDEA hemen

GARAZI SANTACRUZ:
“Letrak pertsonalak bezain kritikoak dira. Hainbat alorretako injustiziei idatzi diegu” 24-25 or.

NAGUSIEN KONTSEILUA:
Apirilean abiatuko dute nagusientzako jantoki soziala Amurrion 12-13 or.

40 urte betetzear Aceros ixteko lehen asaltotik: protestak, tanketak eta tiroak

AIARA 2
Erreferentziazko ospitalea berriz Gurutzeta izatea eskatu dute
Elkarretaratzea egin zuten Añes, Lexartxu, Kostera, Erbi, Lanteno eta Erretes Lantenoko bizilagunek Amurrion

ARAKALDO 4
Arakaldoko alkate izateari utziko dio Jabi Asurmendik
12 urte igaro ditu Arakaldoko Udalean, eta 2019tik da Udabiltzako lehendakaria

AIARALDEA 8-9
Mugimendu Feministak Greba Orokorrean jarriko du hurrengo mugarria
Martxoak 8aren ostean, greba antolatzeko lanetan dira, zaintza eskubidea helburu

OROZKO 10-11
Felix Ugarriza, Gorbeiako eta Athleticeko ahotsa baino gehiago
Iragan astean zendu zen Felix Ugarriza orozkoarra, Athletic Club-eko eresarkiaren abslaria

KULTURA 14-15
“Gaztelaniaz eta ingelesez sortutako gauza asko daude munduan”
Musika elektronikoa ardatz, proiektua sortu dute Azkaratek eta Villarrek

KULTURA 23
Zinema produkzio handien eszenatoki da Aiaraldea egunotan
Pelikulak filmatzen ari dira Amurrion eta Urduñan

KIROLA 26
Aiarako Birako XXXIII. edizioko lehen bi etapak jokatu dituzte
Aiara Txirrindulari elkarteko Iker Colmenerok parte hartze bikaina izan du lehenengo jardunaldietan

herriz herri

Aiara

Aiarako sei herritako erreferentziazko ospitalea berriz Gurutzeta izatea eskatu dute

Martxoaren 10ean egin zuten elkarretaratzea Amurrioko osasun zentroaren aurrean. **Aiaraldea.eus**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Elkarretaratzea egin zuten iragan astean Añes, Lexartxu, Kostera, Erbi, Lanteno eta Erretes Lantenoko hainbat bizilagunek Amurrioko osasun zentroaren aurrean

Euren erreferentziazko ospitalea berriz Gurutzeta izatea eskatu zuten Añes, Lexartxu, Kostera, Erbi, Lanteno eta Erretes Lantenoko hainbat bizilagunek martxoaren 10ean Amurrioko osasun zentroaren aurrean.

Salatu zutenez, iazko ekainean iritsi zitzaien gutuna, aurreratzean Usansoloko Ospitalera joan beharko zirela esateko. "Orain arte, gure medikua (eta Soxoko herritarrena) Artziniegan egon da, espezialistengana jotzeko Enkarterrietara joan behar genuen eta Gurutzetako erietxea zen gure erreferentziazko gunea". Orain, aldiz, Arespalditzan izango dute medikua (Soxok salbu), baina nabarmendu dute hori ondo iruditzen zaiela. Ospitale aldaketa da kexak eragin dituena.

Bi arrazoi nagusi plazaratu dituzte. Alde batetik, azaldu dute garraio publikoa "oso eskasa" dela Usansolora. "Bertara joateko ia ordubete baliatu behar dugu. Gurutzeta, aldiz, ordu erdira dago". Gainera, aparkatzeko arazoak ere aipatu dituzte. "Usansolon ezin da autoa utzi. Pertsona bat kotxez baldin badoa, gidari batekin joan behar da. Gainera, gure herrietako jende gehiena nagusia da, eta ez du mugikortasun askorik".

Gogorarazi dutenez, duela hamar urte inguru ere saiatu ziren aldaketa egiten, baina bertan behera utzi zuten azkenean, hainbat kexaren ostean. Oraingoan, aldiz, azken sei hilabeteak igaro dituzte aldarrikapenak bide formaletatik egiten, erakunde publikoei eskaera eta gutunak bidaliz.

Ez dute esperotako emaitza lortu, eta horregatik igaro dira kalean protestatzera. Aurreratu dutenez, ostiralero mobilizatzeko asmoa dute, ordu eta toki berean.

Mugikortasuna aldarri

Usansoloko ospitalera iristeko zailtasunek aldarrikapen ugari sorrarazi dituzte eskualdean. Aiaraldeko Pentsiodunen Mugimenduak mozioak aurkeztu ditu hainbat udaletan, bertaraino joateko autobus zerbitzu zuzena eskatzeko.

Laudio

10,5 milioi euro jaso zituzten Vidralako zuzendaritzako eta administrazio kontseiluko kideek iaz, aurreko urteko bikoitza baino gehiago

Vidralako lantegietan eginiko argazki bat. **Jose A. Del Moral**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Igoera nabarmena egon da Vidralako zuzendaritzako eta administrazio kontseiluko kideen soldatetan. 2021ean 4,7 milioi euro jaso zituzten guztira. 2022an, ordea, 10,5 milioi banatu zituzten 28 kideren artean. Aipatzekoa da 28 pertsona horietako 5 baino ez direla emakumezkoak. Hori ondorioztatu daiteke konpainiak Balore Merkatuaren Espainiako Batzordean aurkeztutako txostenak ikusita.

8,6 milioi euro

Soldata igoera ikusgarriena zuzendaritzako kideen artean jazo da. 2021ean 12 goi kargudun zeuden enpresan, eta 3.320.000 euro jasotzen zituzten guztira. Iaz, aldiz, 14 izatera pasa ziren, eta 8.604.000 euro banatu zituzten guztira euren artean. Administrazio kontseiluko kideen artean, aldiz, igoerak ez dira horren nabariak. 1.990.000 euro banatu zituzten iaz 14 kontseilarien artean.

2021ean, aldiz, 1.449.000 euroa izan zen kopurua, baina kontuan hartu behar da orduan 3 kide gutxiago zeudela Vidralako agintaritza-organo gorenean. Hala ere, nabarmentzekoa da Carlos Delclauxek (Vidralako presidentea) bere soldata eta dietak bikoiztera pasa dela. 508.000 euro jaso zituen 2021an, eta 990.000 euro, aldiz, 2022ean. Baina kontuan hartu behar da 990.000 euro horietako 455.000 euro "epe luzerako ordainketa aldakor" moduan jaso zituela (hau da, ez dira ohiko soldataren barruan kokatzen).

Dena den, aipatzekoa da Administrazio Kontseiluko kide ugari (Carlos Delclaux bera tartean) Vidralaren akziodun esaguratsuak direla, eta modu horretan ere jasotzen dutela dirua, dibidendoen bidez. Carlos Delclauxen 20 urte bete zituen iaz Vidralako presidente moduan, eta bera eta bere familia 91. postuan daude Espainiako Estatu pertsona aberatsenen zerrendan.

Lanpostuak arriskuan

Zuzendaritzako eta administrazio kontseiluko kideen egoerak kontrastea egiten du Laudioko lantegietako langileenarekin. Enpresak 90 enplegu suntsitzeko asmoa iragarri du Aiala Vidrion 2025. urterako, azpiegiturak modernizatu nahi dituelako. Horrez gain, langileek greba egunak eta mobilizazioak egin zituzten iaz, behargin batzuen kaleratzeak eta konpainiaren "tratu txarra" salatzeko.

herriz herri

Laudio

Envases enpresako lan gatazka amaitu da eta langileek garaipentzat jo dute lan hitzarmen berria

Bi greba egun egin dituzte guztira Envases enpresako langileek. **LAB sindikatua**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Bi egunez greba egin eta ekoizpena guztiz gelditu ostean, Envases enpresako langileek lortu dute lanuzteak hasi baino lehen finkatutako hainbat helburu jasotzea lan hitzarmen berrian.

Garrantzitsuena, LAB sindikatuaren aburuz, honakoa izan da: "Mugarik gabeko bosturtekoen sorrera berreskuratzea, diskriminazioarekin eta soldata-eskala bikoitzarekin amaituz. Oso urrats garrantzitsua da gaurko, biharko eta etorkizuneko Envases-eko langileentzat. Antzinatasunaz gain, soldata-bermea lortu da KPIaren gainetik, eta hobekuntzak eskuratu dira eskubide sozialetan, hitzarmen honetan inolako atzerapenik egon ez delarik".

Nabarmendutako beste aurrerapen bat izan da langile berriei ez zaiela kategoria baxuagoa ezarriko, "horrek are gehiago prekarizatzen baitzituen Envases-eko baldintzak". LABek azaldu du borroka hasi zenean xede nagusia zela antzinatasunari irtenbidea ematea, langile guztientzako bosturtekoak modu berean eta mugarik gabe sortzeko: "Duela 10 urte, ELAk osatutako batzordeak bosturtekoen izoztea sinatu zuen lau bosturteko baino gutxiago zituzten langileentzat, eta antzinatasunaren kobrantza kendu zuen kontratazio berrietarako. Bitartean, lau bosturteko baino gehiago zituzten langileek mugarik gabe bosturtekoak sortzen jarraitzen zuten".

Akordioa lortuta, Envases enpresako zuzendaritzak ekidin du, gutxienez, beste bi egunez ekoizpena geldituta egotea, beharginen asmoa lanuzteekin jarraitzea baitzen.

Orotara, bi greba egun egin dituzte beharginek azken bi asteetan.

Urduña

Gizonezko bat atxilotu dute Zedelikako baselizako kanpaia lapurtzeagatik

Testua
Aitor Aspuru Saez

Iragan martxoaren 10ean Ertzaintzak 47 urteko gizona atxilotu zuen Urduñako Zedelikako auzuneko baselizan zegoen kanpaia lapurtzea egotzita.

Poliziak 07:30ean izan zuen gertatutakoaren berri eta horri lotuta A-625 errepidean gelditu zuten furgoneta bat, Laudion. Barruan aipatutako gizonezkoa, kanpaia bera eta hainbat tresna topatu zituzten.

Ondorioz, gizonezkoa atxilotu, indar bidezko lapurreta leporatu eta epaitegira eraman zuten arratsaldean.

Erretes Tuterako kasua

Ertzaintzak jakinarazi du antzeko lapurreta baten inguruan ikertzen ari direla oraindik, zehazki, iaz Erretes Tuteran gertatutakoa. 2022ko abenduaren 10ean elizako bi ate apurtu zituzten eta barruan zeuden metalezko elementuak eta gurutze bat lapurtu zituzten

herriz herri

Arakaldo

Mendabiara (Nafarroa) joango da bizitzera Asurmendi eta, horrenbestez, bukatutzat emango du Arakaldoko Udalean eginiko 12 urteko ibilbidea.

Arakaldoko alkate eta Udalbiltzako lehendakari izateari utziko dio Jabi Asurmendik

Jabi Asurmendi 2019an izendatu zuten Udalbiltzako lehendakari **Aiaraldea.eus**

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Arakaldoko alkate eta Udalbiltzako lehendakari izateari utziko dio Jabi Asurmendik. Hala jakinarazi du berak Twitterreko txio hari baten bidez.

Asurmendik jakinarazi duenez, Mendabiara joango da bizitzera hemendik gutxira, eta irakaskuntzara itzuliko da, lan hori bere "militantziaren" parte dela nabarmenduta.

12 urte eman ditu Arakaldoko Udalean. Lehen lau urteak zinegotzi moduan igaro zituen. 2011ko hauteskundek irabazi zituen, baina oso tarte txikiarekin, eta araudiak ezartzen duenaren arabera, zozketa bidez erabaki zen nor izango zen alkatea.

Hurrengo bi hauteskundeak, aldiz, tarte handiagorekin irabazi zituen eta, ondorioz, bera izan da alkatea azken 8 urteetan.

Udabiltzako lehendakari, aldiz, 2019an izendatu zuten. Horrez gain, jardun osoan ekin zion erakunde horretan lan egiteari, kudeatzaile moduan. Ardura hori ere utziko du.

"Arakaldoko udalaren ardurari eta EH Bilduko militantziari esker benetan maitasun handia diedan hainbat pertsona ezagutzeko aukera izan dut urte hauetan", azaldu du. "Ez dut hitzik eskertzeko Arakaldoko eta eskualdeko hainbat lagunek eman didaten guztia".

Dena den, ez du politika albo batera utziko, EH Bildu Nafarroan militatzera igaro baita. Aitortu du erabakia ez dela "batere erraza" izan: "Baina, behin hartuta, ilusio handia daukat bizitza aldaketa honetan eta gogo handia Mendabian, Nafarroan eta Euskal Herrian ahal dudan ekarpena egiteko".

Udalbiltzan bizitako esperientzia ere jarri du balioan, "Euskal Herriko txoko eta herri ezberdinetako pertsona ederrak" ezagutzea ahalbidetu diolako. Aitortu du "zailtasunak" egon direla bidean, "are gehiago azken urteetan", baina nabarmendu du egon direla "poz handiak" ere. "Nirekin daramatzat urte hauetako ibilbidean ikasitakoa, bizi izandakoa, emandako sentipenak eta ezagututako pertsonak, mila esker denoi!".

Jabi Asurmendik 12 urte igaro ditu Arakaldoko Udalean, eta 2019tik da Udabiltzako lehendakaria

Balorazio positiboa

Bere lehen lau urteetan oposizioan une gogorrak bizi izan zituen arren, bere jarduera politikoari dagokionez, Asurmendik uste du aurrepausoak eman dituela Arakaldok bere legealdietan: "Proiektu garrantzitsuak atera ditugu; Arakaldo eta Arrankudiaga arteko bidegorria, parkeen hobekuntzak, HAPO berria abiatzea, LED argiak jarri ditugu eta eguzki plakak".

Beste egitasmo batzuk ez dituzte guztiz amaitu, esaterako, araztegi ekologikoa eraikitzeko ikerketa burutu dute eta balizko tokia erabaki, baina ekimena gauzatu beharra dago. Telekomunikazioan edota energia komunitateak sortzeko esparruan ere ez du nahi zuena lortu Asurmendik: "Erakundeetan sartzen zarenean konturatzen zara zenbat oztopo dauden administrazioaren eta legearen aldetik. Instituzioen abiadura oso bestelakoa da. Esaterako, udaletxeko plaka fotoboltaikoak instalatu eta gero, urtebete itxaron behar izan genuen Iberdrolak homologatu arte".

Kultura berria udalerrian

Edonola ere, alkateak uste du egin duten ekarpenik garrantzitsuena izan dela kultura politikoa eraldatzea eta errotzea: "Lehen ez zegoen parte hartzerako grina sortu dugu udalerrian, herri batzarretan adosten dena udal taldearen jardueran islatzen baita. HAPO edo bestelako gaiak landu ditugunean parte hartze jatorra egon da. Adibidez, irisgarritasun plana jorratzeko erredakzioa egin zuen enpresa etorri zen herrira eta ezustekoa izan zen eurentzat ikustea jende askok parte hartzen zuela bileran. Espero dugu kultura hori ez desagertzea".

Ordezkoak, jakinarazteke

Oraindik ez da jakinarazi nor izango den Arakaldoko EH Bilduren zerrendaburua, momentuz ez baita hautagaitzarik aurkeztu udalerri horretan.

Arrankudiaga-Zollo

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kide izateko herriko biztanleriaren %70ak euskaraduna izan behar du eta Arrankudiaga-Zollok baldintza hori betetzen du.

UEMAn sartzeko eskaera egitea onartu dute aho batez Arrankudiaga-Zolloko udalbatzan

100 udalerrien langa gainditukо du UEMAk datorren martxoaren 25ean. **UEMA**

Testua **Aitor Aspuru Saez**

EH Bilduk eta EAJk adostu zuten martxoaren 7ko udal osoko bilkuran Arrankudiaga-Zollok ofizialki eskatzea UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean sartzea.

Txutxi Ariznabarreta alkateak argitu duenez, eskaera UEMArekin landu dute azken hilabeteetan eta mankomunitateak berak animatu du herria, ikusita bere biztanleriaren %70 euskaraduna dela.

Izan ere, hori da bete behar den ezaugarri nagusia. "Udal euskara arloaren helburuetako bat UEMAn parte hartzea da", adierazi du Ariznabarretak.

Aho bateko aldeko botoarekin oniritzia eman zioten erakundeko estatutuei, erabakia publiko egiteari eta urtero 6.100 euro inguruko ekarpena egiteari mankomunitatean.

Martxoaren 26an UEMA Eguna ospatuko dute Arrankudiaga-Zolloko bizilagunek

Alkateak azaldu duenez, "UEMAk aholkularitza eskainiko dio Udalari. Izan ere, Arrankudiaga-Zollon bezala, beste leku batzuetan euskara jakintza handitu den arren, erabilera ez da hazi. Beste herri batzuen esperientziak partekatzeko aukera izango dugu mankomunitateko aholkulariekin".

Martxoaren 25ean UEMAk batzar orokorra egingo du Azpeitian eta Arrankudiaga-Zolloko hautagaitzarekin eta beste hiru udalerriren eskaerekin, mankomunitatea 100 kidera helduko da.

Printzipioz, egitasmoan ordezkaritza herrikoiak parte hartzea sustatuko dute. Hau da, udal ordezkari publikoak ez ezik (Txutxi Ariznabarreta EH Bildutik eta Olatz Alamillo EAJtik), Arrankudiaga-Zollon euskalgintzan aritzen direnak ere joatea nahi dute.

Aipatzekoa da Arrankudiaga-Zollo izango dela UEMAn sartuko den Aiaraldeko bigarren udalerria, Orozkok bat egin baitzuen 2017an.

UEMA eguna

Arrankudiaga-Zollo mankomunitatearea batu eta egun bat beranduago, martxoaren 26an, UEMA eguna ospatuko dute herrian. Udalak egun osoko egitaraua prestatu du UEMAn sartzea ospatzeko.

12:00etan ekitaldia egingo dute Elexalde plazan eta 12:30ean kale animazioarekin girotuko dituzte Arrankudiagako kaleak.

15:00etan bazkaria egingo dute. Izena-emateko aukera zabalik dago honezkero Gizarte Etxean, Batzokian, Ekilore dendan eta Iberlanda tabernan. Martxoaren 19a izango da bazkarira apuntatzeko azken eguna.

Bazkalostea Joxe Mendizabalen kantuek alaituko dute.

Mendi eta baso plana

Martxoaren 7ko udalbatzan aho batez onartu zen beste gai garrantzitsua izan da mendi eta baso kudeaketaren plana. Dokumentu hori Bizkaiko Foru Aldundiari bidali behar diote orain eta herriko ondasun eta bitarteko naturalen kudeaketarako tresna garrantzitsua izango da.

Alde batetik, udalerriko mendi eta basoen inbentarioa da, jabegoa zehaztuta; baina, horrez gain, etorkizunean mendiak eta basoak zertara bideratuko diren ezartzen du, Arrankudiaga-Zollo ingurumena jasangarria izan dadin ekonomikoki zein ekologikoki.

SOLAR TRES60
ZEURE ENERGIA PROPIOA

EGUZKI-ENERGIA, FOTOVOLTAIKOA ETA EFIZIENTZIA ENERGETIKOA
· Produktu onenekin egiten dugu lan
· Aurrekontuak 24 ordutan
· Azpikontrataziorik gabe
· Muntaketa azkarra (2-4 aste)
· Egungo dirulaguntzen kudeaketa
ETXEBIZITZAK
ENPRESAK
AURREZTU %70EAN ZURE FAKTURA ELEKTRIKOA
La Barrena industrialdea, TUTERA (Nafarroa) · 644 601 878 · www.solartres60.com · info@solartres60.com

babestutako edukia

Martxoaren 8tik aurrera

berria fm

PODCASTA

Ziklo berria

Kazetaritza feminista erraietan eta uhinetan

UXUE Rey

ANE Eslaba

Hamabostean behin, asteazkenez, *Berria.eus/podcast* webgunean eta plataformetan entzungai.

Artziniega

Basogintzaren iragana, oraina eta geroa izango ditu hizpide Basoa Fundazioak Artziniegan

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Basoa Fundazioak Basogintzaren iraganari, orainari eta geroari buruzko jardunaldiak antolatuko ditu datorren martxoaren 24an Artziniegako Museoan. Hitzordua Basoen Nazioarteko Egunaren Testuinguruan antolatu du Fundazioak. Jardunaldian parte hartzea doakoa izango da, eta aurrez izena eman behar da Internet bidez.

Egungo gizartea basoa kudeatzea zalantzan jartzen ari dela azaldu du fundazio antolatzaileak, eta zenbait galderari erantzuna bilatzen saiatuko dira Artziniegako jardunaldietan: "Baso-kudeaketa jasangarria da? Ezinbestekoa? Komeniko litzateke, gutxienez ,murriztea? Aldatu da? Norantz eboluzionatu beharko luke?" 9:45ean emango diete hasiera jardunaldiei. Lehenik eta behin, Iratiko oihanean kokatutako dokumental bat proiektatuko dute. "Basogintzako praktikak eta egurraren aprobetxamendu eta garraio-prozesuak gogoratzen lagunduko digu filmak", azaldu dute antolatzaileek.

Solasaldia 12:15ean hasiko dute. Bertan parte hartuko dute Maria Menedez basoa ikertzeko INIA-CSIC erakundeko ikertzaileak, Asuncion Camara Oviedoko Unibertsitateko irakasleak eta Alvaro Aunos Lleidako Unibertsitateko irakasleak. Solasaldia Youtube bidez jarraitu ahalko da.

Protestak Amurrion

Basoa Fundazioak beste jardunaldi batzuk antolatu zituen 2021eko martxoan Amurrio Antzokian. Bertan, eukaliptoaren ustiapena izan zuen hizpide Euskadiko Basogintza Elkarteen Konfederakundeak. Besteak beste, Luis Gil gonbidatu zuten, eukaliptoaren alde lerratu den katedraduna.

Uhandre Amurrioko Baso Biziak plataformak elkarretaratzea egin zuen antzokiaren aurrean, eukaliptoaren ustiapena eta basoen industrializazioa salatzeko:

Herriko ibai eta naturguneak ezagutzeko txangoa antolatu dute

Artziniegako ibai ertzean eginiko ekimen bat, 2019an. **Aiaraldea.eus**

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Ekimen berezia iragarri dute Muskerrak elkarteak, Ganzorrotz mendi taldeak eta Artea etnografia elkarteak. "Gure ibai ekosistemetako bioaniztasuna aztertuko dugu, baita gure ibaiek ezkutaturiko kultur ondarea ere", zehaztu dute deialdian. Artziniegatik Soxogutira joango dira, baina Berronesetik ere igaroko dira. Iraupenari dagokionez, hiru orduko txangoa aurreikusi dute, "zailtasun ertaina" izango duena. Izan ere, 6.5 kilometroko zirkuitua osatuko dute partaideek.

Artziniegako Udalak begi onez ikusi du egitasmoa, eta elkarteen lana txalotu du: "Eskerrik asko Muskerrak, Ganzorrotz eta Artea elkarteei ekintza polit honetarako elkartzeagatik".

Irteera 10:00etan izango da Toñin Luengas frontoitik, eta doakoa izango da parte hartzea.

argazki erreportajea

Milaka pertsona mobilizatu ziren iragan martxoaren 8an Aiaraldean. Zaintza sistema iraultzeko beharra jarri zuen mugimendu feministak erdigunean, eta greba orokor feminista batean jarri dute ortzimuga. Dagoeneko hasi dira hura antolatzeko lanetan.

Greba feminista aldarri, zaintza eskubidea helburu

Testua eta argazkiak
Aimar Gutierrez Bidarte

Ehunka ekintzaile feministek hartu zituzten, beste behin ere, Aiaraldeko kale eta errepideak iragan martxoaren 8an. Aurtengo Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna inflexio puntu bezala irudikatu du Euskal Herriko Mugimendu Feministak, mugimendu bezala berriz artikulatu eta epe luzeko erronkei indarrez ekiteko asmoz. "Denon bizitzak erdigunean" dinamikaren baitan feminismoa borroka kolektiboa dela aldarrikatu dute, eta zaintza eskubidea jarri dute aldarri guztien erdigunean.

Greba feminista

bide horretan urrats eta mugarri berriak iragarri ditu Euskal Herriko mugimendu feministak. Hain zuzen ere, martxoaren 8ko goizean greba orokor feminista bat antolatzeko deia luzatu zuten Bilboko Arriaga Plazan egindako agerraldian. "Zaintza negozio izateari uztea nahi dugu; greba feminista orokor batera goaz, eta gaur, martxoak 8, lehen urratsa da", adierazi zuten Euskal Herriko Mugimendu Feministako ordezakriek.

Greba gorpuzteko prozesua abiatuko dute orain herriz herri, eragile feministak eta norbanakoak elkartuz. Ortzimuga ezarri dute honezkero: zaintza eskubidea aitortzea eta zaintza sistema publiko komunitarioa ezartzea.

argazki erreportajea

soslaia

Felix Ugarriza zendu zen pasa den astean. Orozkoarra gogoratua izaten ari da Athletic Club-eko eresarkiaren abeslaria izan zelako, baina ekarpen gehiago egin zituen bere bizitzan, Mari Jaiako kantan edo Euskaldunon Egunkarian.

Felix Ugarriza, Gorbeiako eta Athleticeko ahotsa baino gehiago

Felix Ugarriza (eskuma) duela astebete zendu zen, euskal kulturaren hainbat esparrutan ekarpen oparoa egin ostean. **Ugarriza-Olabarria sendia**

Testua **Aitor Aspuru Saez**

Felix Ugarriza Orozkon jaio zen 1943ko martxoaren 2an. Aita Jose Martin artzaia zuen, eta ama Frantziska, baserriko emakumea eta etxeko nagusia zena.

Hiru arreba nagusiago zituen: Luci, Venantzi eta Bibi. Gazteenarekin 10 urteko aldea zuen.

'Gorbeiako ahotsa' ezaguna izan baino lehen, Felix abesten hasi zen Aresketako auzotik Ibarrako eskolarako bidea hartzen zuenean. Goizez eta iluntzean joaten zenez, amak ibilbidean zehar entzuteko egiten zuen. Berez, Ibarrako eskolan gutxi iraun zuen, etxeko jardunetan laguntzen zuelako eta txikia zenean Gabiriko Frantsizkanoetara eraman zutelako. Bere aitak apaiz izatea nahi zuen, baina amak ez. Tarteka Ibarran meza-laguntzaile lanak egin izan bazituen ere, Gabiriko Frantsizkano eskolan ez zen guztiz moldatu eta amak ateratzea erabaki zuen.

Politikoki, Felix Ugarrizak betidanik izan zituen ideia oso argiak: euskaltzale, abertzale eta borrokalari amorratua zen, baina betiere bere izaera umil eta apalaren barruan.

Lana eta politika

Gazte izanik LIP enpresan lanean hasi zen eta Juventud Católica Obrera gazte erakundeko partaide izan zen. Bertan, Francoren kontrako protestak egiten zituzten. Halaber, mendietan elkartu eta euskal abestiak kantatzen zituzten.

Jarduera hori dela eta, behin baino gehiagotan jarraika izan zituen Guardia Zibila eta Orozkoko aguazila eta bere ama beldurtzea lortu ez ezik, azkenean atxilotu zuten.

Frankismotik ihesi

Guzti horren ondorioz, Frankismoaren errepresiotik ihes eginda, Alemaniara alde egitea erabaki zuen bere kantu irakasleak, Bego Abaituak, lagunduta. Bertan, Zeberioko Maite Idirinekin elkartu eta kantuan ikasteko aprobetxatu zuen.

Urte batzuk geroago, berriz ere itzuli zen Euskal Herrira, bere aberrira. Orozko suspertzeko hainbat ekimenetan parte hartu zuen orduan. Horrela, herrian denetarik egin izan zuen: herrigintzan, euskal kulturan, pilotan, mendizalea, lagunen laguna ('El patas' ezizenagatik ezaguna), parrandazalea...

Telebistan

Jose Maria Iñigok gidatutako La Gran Ocasión telebista programaren barruan, lehiaketa berezia antolatu zuten, kantu lirikoaren barruan, Venezia diskotekan, hau da, Saturraran eta Ondarru artean. Felix lehiaketa horretara aurkeztu zen eta irabazi zuen. Han sortu zen 'Gorbeiako ahotsa' ezizena.

Orozkotik Laudiora

Denborarekin, bere emaztea, Marian Olabarria, ezagutu zuen. Maitemindu, ezkondu eta familia sortu zuten, elkarrekin bi alaba izanik, Eider eta Saioa Ugarriza. Halaber, emazteak Laudiora bizitzera ekarri zuen. Aipatu behar da bost biloben aitite ere izan zela: Ugaitz, Aritza, Enaitz, Lur eta Jare.

Athleticeko ereserkia

Felix Ugarrizak euskal munduko jende ezagun eta ezezagun asko zituen lagun, hala nola Jose Mari Arrate eta Jose Angel Iribar. Horrela suertatu zitzaion Athletic Clubeko himnoa abestea.

1983. urtea zen eta Jose Mari Arrate izan zen ereserkiaren arduraduna, zuzendaritzako kide gisa. Berak argi zeukan euskaraz egingo zuela, herri izaera adierazi nahi zuelako. Gauzak horrela, Antxon Zubikarairen semeak (ondarrutarra zena) egin zuen letra, eta Karmelo Bernaola konpositoreak egin zituen gidaritza lanak. 'Altxa gaztiak' pasodoblean oinarritutako musika erabili zuten eta ondoren, letra eta musika lotu zituzten.

Arrate presidenteak hasieratik argi izan zuen Felix Ugarrizak izan behar zuela abeslaria. Parte-hartzaile guztien artean abestia aztertu eta osatzeaz gain, harreman polita garatu zuten.

soslaia

Hala ere, hori ez zen izan musikaren munduan egin zuen ekarpen bakarra, Mari Jaiaren kantan ere ahotsa jarri baitzuen Felix Ugarrizak. Hau da, duda barik, Bilbon gehien entzuten diren bi abestietan parte hartu zuen.

Euskaldunon Egunkarian

Urte luzez Rothmans tabako enpresan produkzio lanetan arduradun aritu zen. Denbora luze kanpoan ematen zuenez eta tarte horietan familia ikusteko aukera ez zuenez, 45 urterekin enpresa utzi eta Euskal Herrian lana topatzea erabaki zuen.

Handik urte pare batera, euskal kulturarekin bat egin eta Euskaldunon egunkarian lanean hasi zen berriro ere, harik eta Auzitegi Nazionaleko epaile baten aginduz itxi zuten arte.

Momentu horiek oso gogorrak izan ziren berarentzat, baita ondorengoak ere. Baina gertaera latza jaso eta biharamunean 'Egunero' egunkaria jarri zuten martxan.

Azkenean, Felix Ugarriza Berria egunkarian erretiratu zen. Eta Eukaldunon egunkariaren itxieran gertakari okerragoak jazo baziren ere -torturak, esaterako-, aipatu beharra dago egunkariaren indarrezko amaierak nabarmen kaltetu zuela Ugarriza ekonomikoki, pentsiodun bilakatu zenean.

Erretiratua, baina ez geldirik

Azken urteak Laudio eta Zarautz artean eman zituen eta euskararen munduarekin lotura estua izaten jarraitzen zuen, hala nola Jauzarrea proiektuan parte hartuta. Senideek gogoratzen dute, pertsona maitatua eta eredugarria izan arren, bere ezaugarri nagusia beste bat zela: oso apala eta umila izatea.

Omenaldia ere, bere izaera umilari jarraiki, Orozkon egingo dute, modu oso intimoan.

Dena den, bere azken egunetan, etxetik igaro diren lagunen artean bi iruzkin azpimarratu nahi ditu familiak.

Alde batetik, Jose Mari Arrate Athletic Clubeko presidente ohiak esandakoa: “Athleticen egondako garaian egindako gauza onenetarikoen artean dago Athleticeko ereserkia egin izana, eta nirekin batera hautatutako hiru pertsonekin egitea”.

Bestetik, Jose Angel Iribarrek honakoa aitortu zuen: “Himnoa entzuten nuenean, harro sentitzen nintzen lagun eta ingurukoei esanez kantaren abeslaria, Felix, nire adiskidea zela.”

Oroitzapen horiekin, senide hurbilenek eskerrak eman nahi izan dizkiote bizitza berarekin partekatu ahal izanagatik. Horregatik adierazi dute berak altxatutako banderak aurrera eramango dituztela.

erreportajea

Nagusientzako jantoki soziala, labetik ateratzear

Felipe Zilonizaurrekoetxea Cimarro eta Patri Aldama Arbaiza, jantoki moduan erabiliko den espazioan. **Aiaraldea.eus**

Hainbat urteren ostean, apirilean abiatuko du Amurrioko Nagusien Kontseiluak nagusientzako jantoki sozialaren proba pilotua, behin betiko proiektua irailetik aurrera ezartzeko helburuarekin. Izen ematea zabalik dago dagoeneko.

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Egitasmo berri bat plazaratzear dago Amurrioko Nagusien Kontseilua: Nagusientzako jantoki soziala. Egitasmoak hainbat urte eman ditu labean egosten, Kontseiluaren sorreran baitu jatorria, Felipe Zilonizaurrekoetxea Cimarrok gogorarazi duenez. "Duela 4 urte, kontseilu moduan lan egiten hasi ginenean, Udalak eginiko inkesta batzuk ikusi genituen, 65 urtetik gorako herritarrei eginikoak".

Galdetegi horien emaitzek "harridura" sortu zuten kontseiluko kideen artean, ikusi zutelako uste zutena baino jende edadetu gehiago bizi dela bakardade egoeran eta elikadura maila desegokiekin. "Horietako asko emakume alargunak ziren, bizitza osoa euren familia zaintzen eman ostean, egun batetik bestera bakarrik geratu zirenak, inolako babes sozialik gabe".

Orduan bururatu zitzaien jantoki sozialaren ideia, bi helburu asetzeko: "Isolamendu egoeran dauden nagusiek harreman sozial politez eta otordu osasuntsu batez gozatu ahal izatea".

Proba pilotua, hastear

Baina egitasmoa ez zen berehalakoan garatu. Amurrioko Udalaren barruko erakundea da kontseilua, pertsona boluntarioek kudeatzen duten arren, eta instituzioen erritmoak ez dira nahi bezain azkarrak, Patri Aldama Arbaiza kontseiluko kideak aitortu duenez.

Baina iritsi da unea. Udalak aurrekontu partida gorde du ekimena aurten garatzeko, eta apirilean jarriko dute martxan proba pilotua, ekainera arte luzatuko dena. Nagusien Etxeko areto nagusian atonduko dute jangela, catering enpresa bat kontratatuta, espazioak ez duelako sukalde industrialik. "Bi dieta egongo dira: ohikoa eta berezia, diabetesa edo antzeko gaitzak dituzten pertsonentzat", aurreratu du Zilonizaurrekoetxeak.

30 pertsonentzako espazioa egongo da orotara. Jende gehiago aurkeztuko balitz, errenta baxuena dutenek izango lukete lehentasuna, eta bestela zozketa egingo litzateke izena eman duten pertsona guztien artean.

Astelehenetik ostiralera zerbitzatuko dituzte otorduak, 13:30etik 15:00etara. Martxoaren 27ra arte egongo da izena emateko epea. Amurrioko Udalera deitu (945 891 161) edo idatzi (partehartzea@amurrio.eus) daiteke informazio gehiago eskuratzeko.

Irailean martxan

Proba pilotuaren bidez, proiektuaren harrera neurtu nahi dute kontseiluko kideek, irailetik aurrera behin betikoa martxan jartzeko. Zerbitzu hori ez da doakoa izango, baina "prezio publikoak" ezarriko dira, Zilonizaurrekoetxearen esanetan: "Prezio publiko batzuk zehaztuko dira cateringaren eta zerbitzuaren kostuak finantzatzeko, baina hobariak ezarriko zaizkie errenta baxuagoa duten pertsonei. Modu horretan, batzuk bazkaria %90ean izango dute finantzatuta, beste batzuk gutxiago eta beste batzuk prezio publiko osoa ordainduko genuke".

Martxoaren 26ra arte egongo da proba pilotuan izena emateko aukera. Parte hartzea doakoa izango da lehen fase horretan

Horrez gain, etxez etxeko banaketa egitea ere aurreikusi dute, jangelara bertaratu ezin duten pertsonentzat. "Hori datorren urtetik aurrera hasiko gara egiten, seguraski", aurreratu du Aldamak.

Etorkizunean, jantokia Landazuri etxera mugitu ahal iza-

tea espero dute kontseiluko kideek, bertara mugitu baitira eguneko zentroa eta etxebizitza komunitarioa, eraikina atontzen denean. Amurrioko Udalak iaz onartu zuen Landazurin eguneko zentroa atontzeko proiektua, 1,6 milioi euroko aurrekontuarekin.

Nagusilanen lana

Amurrioko Nagusien Kontseiluko kideek ez dute burua soilik jantoki sozialean. Beste hainbat egitasmo ere dituzte esku artean. Hitzaldiak, tailerrak, aldizkari hiruhilabetekariaren argitaratzea, zineforumak, osasun zentroko langileekin topaketak... makina bat jarduera burutu dituzte azken urteetan.

Baina Aldamak eta Zilonizaurrekoetxeak argi dute zein den ekimenik arrakastasuena: hilabetero antolatzen dituzten egun bateko irteerak. "Txango zoragarriak dira, Euskal Herriko zein inguruko txoko ezezagunak ezagutzeko balio dutenak. Ez dugu eskari guztia asetzeko aukerarik", nabarmendu du Zilonizaurrekoetxeak.

Jantokiak prezio publikoak izango ditu, eta errentaren araberako hobariak ezartzeko asmoa dute datorren urtetik aurrera

Hala ere, arrakasta itzela duten arren, ibilaldiak ez dira ekimen garrantzitsuenak, Aldamaren ustetan: "Txangoetara goazen nagusiak aukera gehien ditugunak gara: ez gara bakardadean bizi, ibiltzeko gaitasuna daukagu...". Horregatik, azken urteetan "beste nagusietan" jarri dute begirada, bakardadean bizi diren edo eguna egoitzetan sartuta igarotzen duten horietan, hain zuzen.

Pertsona horien beharrak asetzeko sortu zuten Nagusilan elkartea, COVID-19aren pandemiaren erdian. "Kontseiluko ia kide guztiak batu gara bertan, Elizako Pastoraleko hainbat emakumerekin batera, 20-25 pertsona inguru gaude orotara", azaldu du Zilonizaurrekoetxeak. Helburu nagusi bat dute: pertsonen bakardadeari aurre egitea. "Paseoak egiten ditugu erresidentziako jendearekin, edo kalera ateratzen ditugu kafe bat hartzera. Gainera, pintxo potea eta bingoa egiten ditugu asteazkenero erresidentzian".

Azken urteetan ekimen ugari abiatu dituzte Nagusien Kontseiluko kideek, udalerriko pertsona edadetuen behar eta arazoei erantzuteko asmoz

Modu horretan, "ekarpen txikia" egin nahi dute, "bakardadearen arazo sozial handia bistaratzeko". Telefono bidezko arreta ere eskaintzen dute, eta eskualde osoko zein eskualdetik kanpoko herritarren deiak jasotzen dituzte.

Lan handia egin du Nagusilanek alor horretan, eta bere jarduna aitortua izan da dagoeneko, iaz Urrezko Guk Saria jaso baitzuten elkarteko kideek. Gainera, eskualdeko beste toki batzuetara ere zabaldu da egitasmoa. Laudion 5 laguneko taldea eratu da, eta aurki hasiko dira San Rokeko egoitzako langile eta erabiltzaileekin lanean.

Ezkerrean, Nagusilan ekimeneko partaideak. Eskumako goiko aldean, Nagusilaneko kideak iaz Urrezko Guk Saria jasotzen. Behean, osasun langileekin eginiko topaketa. **Aiaraldea.eus eta Amurrioko Udala**

erreportajea

“Ez genuen espero Gobernuak tanketak aterako zituenik protestaren kontra”

1984ko urtarrilaren 23an Aceros de Llodio enpresako langileak kalera atera ziren, hainbat enpresarekin batera, birmoldaketa planaren kontra. Poliziaren erantzunak ezustean harrapatu zituen: tanketak heldu ziren Laudiora eta tiroak bota zituzten enpresa barruan.

Testua **Aitor Aspuru Saez**

1941ean eraikita, Alzarrate fAceros de Llodio enpresa 1992an behin betiko itxi bazuten ere, soka luzeko prozesua izan zen, zeinak Laudioko inkontziente kolektiboan oroitzapen ahaztezinak utzi zituen. Horietako bat Guardia Zibilaren tanketak herria hartu zuten unea izan zen. Irudi horiek 1984ko urtarrilaren 23an gertatu ziren, siderurgiako sektorearen protestaren testuinguruan. Hain zuzen, egun horietan Industria Ministerioaren asmoa zen 280 langile kaleratzea. “Gobernuak altzairu berezien, ontzien eta aluminioaren industria birmoldatu nahi zituen, kaleratzeen bidez, besteak beste. Sindikatuok bestelako proposamena genuen eta iritzia eta jarrera aldatu zezaten, protesta egun indartsua prestatu genuen”, azaldu du Jose Luis Navarrok; garai horretan CCOO sindikatuko ordezkaria zen.

Gauzak horrela, enpresa ugariren artean adostu zuten egun horretan komunikazio bide garrantzitsuenak oztopatzea eta trafikoa etetea Hego Euskal Herrian. “Hemen errazagoa zen. Batzuek aireportuko sarrera okupatu zuten, Ezkerraldeko Bilboko sarrera besteok, portuak... Laudion A-625 errepidea eta trenbideak blokeatzeari ekin genion”, aipatu du Navarrok.

Garai horretan laudioarrak sindikatuen eta Gobernuko ordezkarien artean Madrilen egiten ziren bileretan parte hartzen zuen. Antza, negoziazio horietan Gobernuko kideek aitortu zuten onartuko zituztela protesta bortitzak, egoera larria baitzen. “Horrelako enpresak ixteak suposatzen zuen zonalde oso bat txirotzea, eta hori bazekiten”, oroitu du Jose Luis Navarrok.

1984ko urtarrilaren 23an poliziak suzko armak erabili zituen Aceroseko beharginen aurka

Ordea, 1984ko urtarrilaren 23an hitz egindako guztia ahaztuta zegoela ematen zuen eta Laudion Guardia Zibila eta Polizia Nazionala agertu ziren

erreportajea

mobilizazioak ezerezean uzteko. “Ez genuen inondik inora espero gertatu zena. Guardia Zibila tanketekin oldartu zen trenbidean, egoera oso arriskutsua sortuta. Ez bakarrik langileontzat, leku oso estua zelako, baita azpiegiturei zegokienez ere”, aitortu du Navarrok.

Alde batetik, sindikatuek ez zuten espero langileen protestaren kontrola galduko zutenik, eta, adibidez, behargin batzuek altzairuzko lingoteak jarri zituzten burdinbidean. Bestetik, estatuaren errepresio bortitzak jokoz kanpo harrapatu zituen.

Egoera ikusita, beharginak lantegira itzuli ziren, non polizia ezin zen sartu. “Legez, polizia ezin zen lantegiaren barruan egon, eremu pribatua baitzen. Hainbat aldiz hitz egin genuen batzarretan eta denok genekien hori”, gaineratu du Navarrok.

Dena den, poliziak legea alde batera utzi eta enpresaren azpiegituretan barneratu zen. Berriro ere, sorpresa piztu zen langileen artean eta enpresa batzordeko kideek erabaki zuten segurtasun indarrekin hitz egitea.

Enpresa batzordeko kide bat poliziarekin negoziatzera joan zen. Bat-batean, bi agente aurreratu ziren enpresa batzordeko kidearengana porrekin jotzera. Ezustean, biak lurrera bota zituen. Orduan bi ofizial agertu ziren eta horiek ere urreratu ziren. Enpresa batzordeko kidea eurekin hitz egitera hurbildu zen eta halako batean, batek pistolarekin apuntatuv zuen kidea eta tiro egin zuen. Zorionez, beste poliziak kolpea eman zion eskuan eta bala desbidertu zuen.

Ordurako, argia zen polizien eta Gobernuaren artean deskoordinazioa eta deskontrola zela nagusi. Ondorioz, ikusita langileak gertakariaren tokian batzen hasten zirela, indar armatuek joatea erabaki zuten. “Portaera erabat arduragabea izan zen poliziarena”, azpimarratu du Jose Luis Navarrok.

Errepresio uholdeak, edonola ere, ez zuen borroka gelditu, eta egun horretako arratsaldean 5.000 lagunek exijitu zuten Gobernu Ordezkariaren dimisioa.

Halaber, nahiz eta eguna tragedia hutsean amaitzetik oso gertu egon zen, Navarrok uste du mobilizazioak emaitza positiboak izan zituela: “Negoziazio mahaiak osatu ziren serioki tratatzeko birmoldaketa plana eta ez zen, une horretan, ofizialki, kaleratzerik egon, nahiz eta zuzendaritzatik zeuden dozena bat pertsonek utzi zuten enpresa".



1984 karga polizialen argazkiak. Goiko irudien artean Jose Luis Navarro, garaiko CCOO sindikatuko kidea, Guardia Zibilaren balak eskuan. **DEIA**

AIARALDEA - FAKTORIA
KOMUNIKABIDE FAKTORIA
www.aiaraldea.eus

agenda

2023/03/15
2023/03/29

Laudio, Luiaondo eta Amurrio lotuko dituzte

berdintasun martxa neurtuan

Urteroko hitzordua bilakatu den Aiaraldeko Berdintasun Martxaren edizio berri bat antolatuko dute aurten ere Laudioko Altzarrate eta Amurrioko Kaskagorri kirol elkarteek elkarlanean. Aurtengo ibilaldia asteburu honetan izango da, martxoaren 19an.

Parte-hartzaile batzuk Amurrioko Juan de Urrutia plazatik abiatuko dira eta beste batzuk Laudioko Herriko plazatik, denak martxoaren 19ko 10:00etan. Amurriotik irtengo direnek Laudio izango dute helmuga, eta alderantziz.

Ez da ohiko norgehiagoka bat, ordea. Alderantzizko denborak hartzen dituzte kontuan eta lehenak edo azkenak irabazi beharrean, tarteko denborek jasotzen dute saria.

Antolatzaileek aurreratu dute ibilbidea laua dela eta edozein pertsonak egin dezakeela. 12 kilometroko luzera du eta Nerbioiko parke linealaren ibilbidea jarraituko du. Gainera, tarteko puntu batean, Luiaondon, hain zuzen ere, deskantsu puntu bat jarriko dute edari eta janarekin.

Sariak martxaren osteko egunetan banatuko dituzte, Laudioko Udaleko Berdintasun arloan. Izan ere, horretarako denbora guztiak egiaztatu eta tarteko denborak atera behar dituzte.

Izen ematea zabalik

Martxan parte hartu nahi duen orok otsailetik du zabalik izena emateko aukera. Laudioko Udaltetxean eta Amurrioko Kultur Etxean jarriko dituzte izena emateko postuak. Inskripzioak 10 euroko kostua izango du eta, horrekin batera, kamiseta bat eta pin bat oparituko dituzte.

MUSIKA

03.17 Ostirala
20:00 LAUDIO
BURBUILAK
Faktoria

03.18 Larunbata
21:00 URDUÑA
STREETLIGTH, BERANDUEGI ERROMERIA ETA VARRO DJ
Foru Plaza

03.18 Larunbata
22:00 LAUDIO
REMEMBER PSIRIUS DANCE MUSIC
Drumgorri Aretoa

03.24 Ostirala
20:00 LAUDIO
BELDUR BARIK KONZTERTUA
Bi Hotsak elkartearen eskutik
Kasinoa

03.24 Ostirala
20:30 AMURRIO
ODEI, ZIZTADA ETA RLANTZ, RAPERU ETA UKI
Gaztetxea

03.24 Ostirala
22:00 AMURRIO
WILLIS DRUMOND ETA AZKENAK ITXI DEZALA
Faktoria

03.25 Larunbata
20:30 LAUDIO
HIP HOP GAUA
Drumgorri Aretoa

03.25 Larunbata
22:30 AMURRIO
STR ETA GUDA DANTZA
Burubio Kultur Elkartea

KIROL JARDUERAK

03.18 Larunbata
07:00 AMURRIO
GAZUMERA IRTEERA ETA SAGARDOTEGIA
Mendiko Lagunakek antolatuta
Telefonika

03.18 Larunbata
09:00 LAUDIO
EMAKUMEEN I. LAIA-VIDRALA PADEL TORNEOA
Gardea kirolgunea

03.18 Larunbata
09:45 AMURRIO
XIV. ARESKETA GIMNASIA TXAPELKETA
Bañueta kiroldegia

03.20 Astelehena
11:30 ARRANKUDIAGA
IKASI MODU ASERTIBOAN KOMUNIKATZEN
Haizea Gomezen eskutik
Erretiratuen etxea

03.21 Asteartea
18:00 OROZKO
BAZEN BEHIN EUSKAL MATRIARKATUAREN MITOA
Aitziber Aginagalderen eskutik
Erretiratuen etxea

03.24 Ostirala
09:45 ARTZINIEGA
BASOAREN KUDEAKETA
Basoa Fundazioak antolatuta
Artziniega Museoa

03.24 Ostirala
18:00 AIARA
KOSEMTIKA NATURALA
Aiarako Udala

03.27 Astelehena
11:00 AIARA
ERORKETAK PREBENITZEKO TAILERRA
Otueta Gizarte Etxea

03.27 Astelehena
17:00 URDUÑA
EMAKUMEA ETA ELIKADURA: NIRE ONGIZATEA ELIKATZEN
Elena Jorrinen eskutik
Erretiratuen etxea

IKUSKIZUNAK

03.17 Ostirala
18:00 ARTZINIEGA
ZINEGOAK
Bilboko Gaybilestrans Nazioarteko Zinema jaialdiko film laburren proiekzioa
Udaletxe zaharra

03.17 Ostirala
19:00 LAUDIO
KIRIKINOREN BASOAREN II. URTEURRENA
Mari pelikularen proiekzioa
Isasiko basoa

03.17 Ostirala
19:30 LAUDIO
'VAMOS A SER UN POCO MÁS BRUJAS'
Ahalduntzeari buruzko antzezlana
Kasinoa

03.24 Ostirala
18:00 LAUDIO
ZU ETA NI BERDIN
Ipuin kontalaria
Udal liburutegia

03.24 Ostirala
19:00 AIARA
LABURBIRA

12.742 km egingo dituzte euskararen alde

Goizetik gauera arte luzatuko da Laudio Ikastolak antolatutako '12.742 km baietz!' ekimena, martxoaren 26an. Goizeko 9:00etan abiatuko da ekimena Zumalakarregi etorbidean, eta 10:30ean egingo dute ekitaldi nagusia. Egun osoko egitaraua prestatu dute, ordea, 19:00ak arte luzatuko dena. Horrez gain, jakinarazi dute txosna egongo dela egun osoan, eta taloak zerbitzatuko dituztela eguerdian.

Periferiak erdigunera

ekarriko dituzte Amurrioko Gaztetxean, martxoaren 24an



'Periferiak erdigunera' jaialdia antolatu du Amurrioko Gazte Asanbladak datorren martxoaren 24rako -ostirala-. Euskal Herriko periferietako artista ezagunak elkartuko dituzte Amurrioko Gaztetxeko oholtzan: Ødei, Ziztada & Rlantz eta Raperu eta Uki.

Odei Barroso rapero eta bertsolari lapurtarrak jarriko dio izen propioa jaialdiari. Urte luzez 2zio taldean aritu eta hiru diskokaleratu ostean, bakarkako bideari ekin dio Barrosok. Ødei ezizenarekin ari da orain, eta *Terapia* lan berria aurkezten egongo da Amurrion, Jo Olascuaga ekoizlearekin batera. Ziztada & Rlantz bikotea izango dira Aiaraldeko ordezkariak martxoaren 24an. Erlantz Serrano amurrioarrak eta Irune Elgezabal bilbotarrak osatutako bikoteak ibilbide luzea egin dute oholtzaz oholtza. 2021ean kaleratu zuten euren azken lana: *KSMS*, bost abestiz osatutako EPa.

Sarrerak salgai daude, 4 euroren truke, Txokogorri eta Biderdi tabernetan.

Kartelera

DONIBANE ARETOA
Agua
MARTXOAK 19
IGANDEA (3,5 euro)
19:00

AMURRIO ANTZOKIA
Irati
MARTXOAK 19, 20
IGANDEA ETA ASTELEHENA
(5 / 3,75 euro)
19:00



DONIBANE ARETOA
Close
MARTXOAK 26
IGANDEA (3,5 euro)
19:00

AMURRIO ANTZOKIA
Almas en pena de Inishering
MARTXOAK 26, 27
IGANDEA ETA ASTELEHENA
(5 / 3,75 euro)
19:00

03.18 Larunbata
16:00 LAUDIO
AIARAKO BIRA
3. Jardunaldia
Larrazabal

03.19 Igandea
10:00 AMURRIO / LAUDIO
AIARALDEKO IV. BERDINTASUN IBILBIDE NEURTUA
Juan Urrutia / Herriko Plaza

03.19 Igandea
11:00 OKONDO
AIARAKO BIRA
4. Jardunaldia
Herrigunea

03.24 Ostirala
19:30 ARRANKUDIAGA
NEGUKO BOLA TXAPELKETA
Bolatokia

03.25 Larunbata
16:00 Artziniega
AIARAKO BIRA
5. Jardunaldia
Hiriko atea

03.25 Larunbata
18:00 LAUDIO
ARABAKO BOLA TXAPELKETA
San Joan bolatokia

03.26 Igandea
09:45 AMURRIO
SAN PEDRO LEZAMARA IBILALDIA
Amurrio Trail taldeak antolatuta
Karrozen aparkalekua

03.26 Igandea
11:00 AIARA
AIARAKO BIRA
6. Jardunaldia
Maroño

HITZALDI ETA TAILERRAK

03.16 Osteguna
18:00 OKONDO
EMAKUMEEN SEXUALITATEA
Kultura Etxean

03.18 Larunbata
10:30 ARTZINIEGA
JANTZIEN KONPONKETA TAILERRA
Udaletxe zaharra

03.19 Igandea
11:30 ARRANKUDIAGA
BIODANTZA FEMINISTA
Gizarte Etxea

Euskarazko film laburren proiekzioa
Aiarako Udala

03.25 Larunbata
19:30 AMURRIO
ANTZERKI LABURREN IX. JARDUNALDIA
Aimara taldeak antolatuta
Amurrio Antzokia

BESTELAKO JARDUERAK

03.17 Ostirala
10:00 ARTZINIEGA
AIARAKO SOLOITZA GAZTANDEGIRA BISITA
60 urtetik gorakoentzako ekintza
Garai plaza

03.18 Larunbata
10:15 AIARA
ZUHAITZ EGUNA
Enrique Arberasek gidatutako ibilaldia
Maroñoko eliza

03.18 Larunbata
11:30 OKONDO
ZUHAITZ EGUNA
haritzen landaketa eta hamaiketakoa
Kultur etxea

03.18 Larunbata
18:00 OROZKO
BERDINTASUNAREN ALDEKO ITUA
Zubiaur plaza

03.18 Larunbata
19:00 AMURRIO
URREZKO GUK SARIAREN GALA
Iñaki Beari emango diote aitorpena
Amurrio Antzokia

03.25 Larunbata
10:00 LAUDIO
ARTZINIEGAKO IBAIEN ONDARE KULTURAL ETA NATURALA EZAGUTZEKO TXANGOA
Toñin Luengas frontoia

03.25 Larunbata
11:00 LAUDIO
KIRIKINOREN BASOAREN II. URTEURRENA
Murla margoketa eta herri bazkaria
Isasiko basoa

INFO +
aiaraldea.eus

elkarrizketa

“Michelin Izarrak dituzten txef handiek badakite zer den sakrifizioa eta gure lana estimatzen dute”

ALBERTO MARTINEZ (Laudio) ETA **MARIANA GONZALEZ** (Argentina)

ADORNO BCN ENPRESAKO SORTZAILEAK DIRA ETA LAN BENETAN BITXIA EGITEN DUTE: MICHELIN IZARRAK DITUZTEN JATETXEENTZAKO ONTZITERIA.

Testua
Aitor Aspuru Saez

Lehenik eta behin, zein da zuen ogibidea?

Alberto Martinez: Funtsean, goi-mailako sukaldaritzako ontziteria eskultorikoa diseinatu eta egiten dugu. Ideia, diseinua eta egikaritzea, dena.

Mariana Gonzalez: Asmoa da ekarpena egitea horrelako jatetxeen esperientzia gastronomikoa hobetzeko. Goi-mailako gastronomia ez da soilik jatea, bada ere gainerako zentzuetan eragitea. Establezimendu horietan denak dauka garrantzia, ez soilik janariak. Jakina, hori oso inportantea da, baina baita musika, dekorazioa, usainak edota ontziteria bera ere. Izan ere, zerbitzaria mahaira hurbiltzen denean, ikusten den lehenengo gauza ez da janaria, platera izan ohi da.

Nola garatzen dituzue lan horiek?

A. M.: Bide ezberdinak daude, pieza batzuk gure kabuz egiten ditugu, ideia propioak agertzen zaizkigu eta egikaritzen ditugu, jakiteko funtzionatzen duten.

Beste batzuetan txefak berak iradokitzen digu kontzeptu bat -basoa edo itsasoa, adibidez-. Kontzeptu horiek mahaira eraman nahi dituzte eta gu hasten gara horrekin lanean. Aintzat hartu behar duzu horrelako menuetan 40 plater ezberdin egon ahal direla: gustu eta testura oso bestelakoak dituztenak. Plater bakoitza menuaren une bat da eta guk jorratzen dugu une bakoitza.

Beste batzuetan, jatetxe berria irekiko duen jendeak bere ideia ekartzen du. Adibidez, haragia egurraren gainean zerbitzatzeko. Modu anitzak daude eskaerak jasotzeko.Horrez gain, lehengaia ere garrantzitsua da eta guk lantzen ditugu egurra, altzairu erdoilezina, burdina, harria, beira... Guztiak jorratzen ditugu txefaren ideiaren arabera, lokalaren dekorazioa oinarri hartuta... Esperientziak berak eramaten gaitu.

Obra bakoitzak zenbat denbora behar du?

M. G.: Proiektuaren araberakoa da. Batzuk oso azkarrak dira ideia harrapatzeko eta gauzatzeko orduan. Kasu horietan maketa aurkezten diogu txefari eta berak ematen du oniritzia. Beste batzuetan, ordea, ideia zailagoa da islatzeko, gure ildo estetikoaren barruan, gutxienez.

Edozein lanetan txefarekin konexioa ezinbestekoa da. Horren arabera maketa bakarrarekin asmatzen duzu, edo bizpahiru egitera behartuta zaude.

Hori diseinuari dagokionez, gero ekoizpena dator. Piezak errazak direnean, astebetean edo bi astetan amaitu dezakegu lana, beste pieza batzuek prozesu konplexuagoak exijitzen dute. Adibidez, altzairu erdoilgaitza soldatzean, materiala bera estresatzen da eta kanpora eraman behar dugu, berriro kimikoki egituratu beharra dago eta. Hori beste enpresa batek egiten digu.

Metal margotuarekin lan egiten dugunean, beste enpresa batera eraman behar dugu pieza, labean egiten baitugu. Orduan bi edo lau aste behar ditugu.

Egin dituzuen piezen artean, zein da zuen ustez bikainena?

A. M.: Oso galdera zaila da. Seme-alabak bezalakoak dira eta denetarik dugu. Pieza bat egitea erditzea bezalakoa da batzuetan eta emaitza oso polita da. Noizbait erraz lortzen dugu, baina oso zaila egiten zaigu. Baten bat aipatzearren, agian mahairako lehen egurrezko barbakoa.

M. G.: Edo metalezko lehena. Oso zaila da. Horrez gain, Albertok eta biok oso bestelako irizpideak ditugu. Niretzat oso ondo egon zen 'Basoa', Paco Perezena. Perez paregabea da. Bi Michelin Izarreko jatetxea dauka -Miramar- eta beste bi izar dituen enoteka. Horrez gain, Repsoleko hiru eguzki ere badauzka.

Berak kontzeptu hori iradoki zigun eta guk pentsatu behar genuen nola islatu mahaian. Mendizaleak garenez, hausnartu genuen zer zen basoa guretzat eta burura etorri zitzaizkigun lurrean dauden hostoak. Hori proposatu genion.

A. M: Orain bururatzen zait Paco Perezentzat egindako beste lan bat. Aurreko sasoietako hainbat bol ekarri zituen, apurtuta zeuden eta nahi zituen pieza batzuk kafea hartzeko. Ez zigun azalpen handirik eman. Nahi zuen zerbait egitea postreetarako ontzi horiekin.

Lehenik eta behin txikitu genituen gero beste zerbait sortzeko. Ikusi zuenean emaitza aho bete hortz geratu zen. Collage baten antzekoa izan zen, baina egurrarekin. Bol guztiak ezberdinak ziren. Asteak eta asteak eman genituen pentsatzen eta egikaritzen. Harro egoteko moduakoa, elkarlanean egin baikenuen.

Publikoki tarte bat itxaroten duzue sare sozialetan zuen lanen berri emateko, ezta?

A. M.: Bai, sukaldariek ezustearekin jokatzen dute, hortaz, urtebete edo sasoia amaitu arte ez ditugu erakusten.

elkarrizketa

Nola bukatu zenuen mundu honetan?

A. M.: Nik delineatzaile izateko ikasi nuen Lanbide Heziketan Laudion eta gero Arte Ederrak Leioan, Ingalaterran eta Bartzelonan. Horiek izan ziren gaurko oinarriak.

Esaterako, amorratzen ninduen museoan sartzea eta ikusteak lanak ukitzea debekatuta zegoela. Artea eliteentzat zegoen bideratuta eta nik uste nuen demokratizatu behar zela. Instalazioak egiten nituen eta ukitu behar ziren.

Orduan kasualitatez ezagututako txef batek eskatu zidan pieza bat bere jatetxerako. 2007an izan zen. Egin nion pieza, gogoko izan zuten eta bere buruzagiak agindu zion ontziteria osoa aldatzea eta piezak sortzea plater bakoitzeko.

M. G.: Oso ondo ulertu zuen esperientziaren beharra maila guztietan. Sukaldetik ateratzean platera ikusgarria bada, janaria dastatzeko gogoak biderkatzen ditu.

A. M.: Urtean behin edo birritan txef horrek pieza bat eskatzen zidan. Nik beste lan bat nuen eta asteburuetan egiten nituen. Zaletasun eta ihesbide moduan.

Gero jendearen artean zabaltzen hasi zen nork egiten zituen eta beste jatetxe batek ere eskatu zidan. Orduan Mariana agertu zen, krisialdiak gure sormena eta beharra piztu zituen eta berak proposatu zuen zerbait egitea. Izan ere, garai horretan egiten genuenarekin ez genuen irabazirik eta, ondorioz, ez genuen ezer galtzeko.

2018an promozio ekintza antolatu genuen. Goi-mailako hamabi txef hautatu genituen, hiru Michelin Izarrak dituztenak, eta bidali genien kutxa bana zer egiteko gai garen erakusteko. Emaitza oso ona izan zen eta enpresa banatzaile batekin harremanetan jarri ginen; ACME. Goi-mailako jatetxeen banatzailea da.

Azkenean, kontu bat eta bestea direla medio, bezero taldea dugu. Orain, batzuetan zer nahi duen ez dakien jendea etortzen zaigu, soilik gure lan bat nahi duelako. Kasualitatea izan da dena.

Nolakoa da harremana txef ospetsu horiekin?

A. M.: Ez dira bereziki divoak. Oso esker onekoak dira.

M. G.: Gure esperientzia da kontrakoa. Oso jende arrunta eta langilea da. Guk ezagutzen ditugunok hutsetik abiatu dira eta badakite zer den miseria eta porrot egitea eta dirurik gabe geratzea, ametsak bete arte. Tratua bikaina da, ez nuen espero, egia esanda. Oro har, gero eta gorago egon, gero eta gehiago baloratzen dute gure lana.

> **“Sukaldetik ateratzean platera ikusgarria bada, janaria dastatzeko gogoak biderkatzen dira”**

Hiru Michelin Izarrekin ez gaituzte behar, baina elkarlanean ari gara eta maiz sari bat jasotzen dutenean, aipatzen dute gu ere horren parte garela. Horrek harritzen gaitu.

A. M.: Kontrakoa gertatu zaigu gehiago, elitean ez dagoen jendea topatzea ez gaituena bereziki ondo tratatzen.

M. G.: Guk ez dakigu nola jokatuko duten beste langile batzuekin, baina gure esperientzia da, gero eta gorago egon, gero eta gehiago ulertzen dutela gure lana.

Beste lan batzuk izan dituzue, zer da gehien estimatzen duzuena zuen lanean?

A. M.: Nahi duguna egiteko askatasuna izatea. Egun guztiak ezberdinak dira. Erokeria da. Hiru pieza lantzen ditugunean hiru material eta hiru ideia ezberdin jorratzen ditugu eta bitartean beste txef batzuek deitzen digute... Noizbait etxera joaten gara eta ez dakigu ezta zer egin dugun. Egon izan gara gelditu gabe egun osoan, baina sentsazioa da ez dugula ezer egin. Oso dibertigarria da eta gure aurreko lanak oso aspergarriak ziren. Gainera, beste batzuentzat egiten genuen. Oro har, 09:00etatik 21:00ak arte egiten dugu behar, baina egunen batean ezin badugu gehiago, ez dugu egiten eta listo, ez da ezer gertatzen.

M. G.: Nik arkitektura teknikoa ikasi nuen eta eraikuntzaren munduan hogei urtez egon nintzen lanean. Mertzenarioa nintzen, ez nuen gogoko lana. Zerbait sortzailea egin nahi nuen eta krisialdiaren erdian ezagutu nuen Alberto eta elkartu ginen. Obretan buruzagia nintzenean lanaldiaren ordu kopurua eta estresa oso antzekoak ziren, baina orain gogoko dut egiten dudana. Asetzen nau. Askatasuna dugu nahi duguna egiteko eta ideia ezberdinak garatzeko aukera dugu.

Zein azpiegitura mota behar duzue lan hau egiteko?

M.G.: Industria pabilioi batean gaude, 500 metro karratu. Biltegi oso handia dugu eta hornigai bakoitza lantzeko tresna eta eremu propioa dugu. Tailer txikiak dira, baina bakoitzak bere makinak eta espazioa behar dute.

A. M.: Imajinatu arotz baten tailerra. Bere tresna guztiak guk ditugu. Bada gauza bera hainbat ogibide eta materialekin; beira, altzairua, burdina...

M. G.: Labeak, tresna mekanikoak, eskukoak...

A. M.: Sekulako azpiegitura dugu, baina horretarako sakrifizioak egin ditugu. Apurka-apurka erosi ditugu tresnak eta norbait hona etortzen denean eta esaten digunean gauza pilo ditugula, nik esaten diot: “Ikusten duzu makina hori? Zuk Mallorcan igarotako oporrak dira, baina nik oporrak izan ordez, makina erosi nuen”. Pieza txikiena egiteko lan ordu andana eta makina pilo behar ditugu.

Lluerna jatetxearentzat eginiko sumellier mahaia. **Adorno BCN**

kultura

“Gaztelaniaz eta ingelesez sortutako gauza asko daude honezkero munduan; guri, euskaraz egitea dagokigu”

ITZI AZKARATEK ETA **ALBERTO VILLARREK** ITZIBER PROIEKTUA SORTU DUTE ELKARLANEAN, MUSIKA ELEKTRONIKOA OINARRI HARTUTA. HIRU ABESTI PLAZARATU DITUZTE HONEZKERO, ETA FAKTORIAN ESKAINITAKO SOLASALDI MUSIKATUA BALIATU DUGU PROIEKTUA HOBETO EZAGUTZEKO.

Testua eta argazkiak
Aimar Gutierrez Bidarte

Duela urtebete proiektu berri bat abiatu zenuten. Aurretik hainbat proiektutan ibili zarete.

Itzi: Laudion hasi nintzen talde batekin batera elkarlanean, Larrazabal ondoko lokaletan. Hor hasi ginen rock nahiko *kañeroa* egiten, baina hainbat abesti sortu ostean taldea hustu egin zen.

Pixka bat dezpezionantea izan zen esperientzia, baina aurrera egitea erabaki nuen. Orduan sortu zen Haize Gorria folk talde urduñarra. Pandemiak nahiko min egin zigun; entsegu lokalak itxita egon ziren eta elkartu gabe egon ginen denbora batez. Zorionez, buelta eman diogu egoerari, berriro hasi gara entseatzen eta abesti berriak sortzen. Asmoa dugu negu honetan CDa grabatzeko, ea dena ondo ateratzen den. Albertorekin duela pare bat urte hasi nintzen.

Alberto: Ni oso gutxitan aritu naiz musika taldeekin. Noizbait entseatzeko elkartu izan naiz batekin edo bestearekin, baina inoiz ez proiektu serio batean. Duela pare bat urte musika elektronikoarekin trasteatzen hasi nintzen eta base bat ekoiztu nuen. Itziri luzatu nion basea, berak horren gainean ahotsa jar zezan. Horrela hasi zen gure ibilbidea.

Lehenago ere eskarmentua izan duzu musika elektronikoarekin?

Alberto: Urte batzuk eman ditut musika elektronikoarekin esperimentatzen. Itziarrekin elkarlanean hasi arte ez nuen ahotsik baliatzen.

***‘Sweet Dreams’* abestiaren bertsio batekin eman zenuten ezagutzera taldea.**

Itzi: Annie Lennoxen abestia da hau, 1980ko hamarkadakoa. Guretzat abesti esanguratsua da. Ahots eta letra potenteak ditu. Laudioko Lamuza parkean grabatu genuen bideoklipa eta emaitza polita lortu genuen.

Alberto: Jende gutxi ausartzen da Annie Lennoxen abesti baten bertsioa egitera. Oso ahots indartsua zuen Lennoxek, baina Itzik maila oso altua erakutsi du.

‘Bide zidorretik’ da plazaratu duzuen azken abestietako bat, otsailean hain zuzen. Kantu hau berezia da hainbat konturengatik, ezta?

Itzi: Momentuak edo bizi duzun egoerak bultzatuta idatzitako abesti horietako bat da azken hau. Zaila suertatu zitzaidan hitzak idaztea, baina uste dut ondo geratu dela.

Alberto: Guk zerbait berria eskaini nahi dugu eta bide horretan emandako urratsa da abesti hau. Berria guretzat; guk ez dugu ezer asmatu eta. Agian ez dugu lortzen nahi duguna, baina behintzat ahalegindu gara.

Arreta berezia jartzen diogu beste toki batzuetan egin

eta ekoizten den musikari. Eta abestiak dioen moduan, “bide zidorretik” egiten ari gara ibilbide hori.

Bideoklipa Berlinen grabatu genuen. Musika elektronikoarekin lotura estua du hiriak, eta estudio batera egindako bidaia probestu genuen bideoa grabatzeko.

Kaleratutako azken abestiak euskaraz sortu dituzue. Zer garrantzia du hizkuntzak Itziber proiektuaren barruan?

Itzi: Nik Euskaraz pentsatzen dut, erreztasun askoz handiagoa dut euskaraz idazteko. Esango nuke ez dakidala erdaraz idazten, ez nintzateke abesti bat sortzeko kapaza izango.

Alberto: Gaztelaniaz eta ingelesez sortutako gauza asko daude honezkero mundu osoan. Guri, hemendik, euskaraz egitea dagokigu.

Nola orekatzen dituzue hitzak eta base instrumentalak?

Itzi: Nik uste orekatuta daudela. Albertok basea sortu eta niri pasatzen didanean, base horrek zer transmititzen didan pentsatzen dut. Transmititzen didanaren eta kontatu nahi dudanaren arteko orekan sortzen ditut hitzak.

Orduan Itziberren abestien oinarrian dagoena base instrumentalak dira.

Alberto: Hori da. Basea sortzen dut lehenengo. Gero horren gainean Itziren ahotsa enkajatzen dugu. Azkenik arreglo guztiak gehitzen dizkiogu abestiari. Gure kabuz egiten dugu guztia, bai grabaketa baita edizio guztia ere.

‘Bide zidorretik’ abestiaren kasuan bai, ahots nagusia Andoaingo Garate Estudioan grabatu genuen Kaki Akarazoren eskutik. Gainerako kasuetan etxeko estudioan egina dago guztia.

Base elektronikoei eta hitzei ez ezik, ikus-entzunezkoei ere garrantzia berezia eman diezue proiektuan.

Alberto: Jendearengana iristeko tresna bezala irudikatzen ditugu guk bideoklipak. Itziber ez da zuzenean jotzeko sortutako proiektua, posiblea den arren. Hori dela eta, ikus-entzunezkoak dira gure erakuslehiorik onenak. Ez dugu sare-sozialik, Youtubeko kanal bat soilik, hor aurkituko gaituzte entzuleek. Nekatuta gaude hainbetse sare sozialetaz eta uneoro produktu bat saltzen egotearen beharraz, hori ez da gure filosofia.

Zer asmo duzue 2023ari begira? Nola irudikatzen duzue proiektuaren oraina eta etorkizuna?

Alberto: Badugu zerbait buruan baina ez dugu presarik. Poliki-poliki goaz.

Itzi: Gure filosofia da gauzak laisatasunez egitea. Badaukagu abesti berri bat pentsatuta. Abesti punki bat, hain zuzen ere.

“Gure filosofia da gauzak laisatasunez egitea. Badaukagu abesti berri bat pentsatuta. Abesti punki bat, hain zuzen ere”

kultura

Arrakastatsua izan zen Antonio Oyarzabalen kontzertua Arriaga Antzokian

Testua
Aitor Aspuru Saez

Mana Zucca, Lili Boulanger, Germaine Tailleferre, Cecile Chaminade, Emiliana de Zubeldia, Emma Chacón eta Maria Luisa Escobarren lanak interpretatu zituen Antonio Oyarzabal piano-jotzaile laudioarrak asteartean Arriaga Antzokian, baina ez zen bakarrik egon zeregin horretan. Izan ere, Karmele Larrinaga antzezle ospetsuak konpositoreei buruzko informazioa eskaini zuen, piezen artean.

Emakumeak izateagatik gizarte patriarkalaren arauekin borrokatu behar izan zuten aipatutako konposatzaileek. Lehenik eta behin, piano ikasketak egiteko eta gero konposatzeko eta euren obrak balioan jartzeko. Antonio Oyarzabalek egindako lanak (historia guztiko 700 emakume konpositore erreskatatu ditu) balio du lan horiek merezi duten tokian kokatzeko. Hain zuzen, emakumezko ugari ezagunak izan dira orain arte norbaiten emazte izateagatik. Beste askok senarren izenean sinatu behar izan zituzten beren sorkuntzak, musikalki errespetua jasotzeko.

Kontzertua amaitzeko, Karmele Larrinagak Emakumeen martxa ereserki sufragista kantatu zuen, Ethel Smyth ekintzaile eta konpositoreak egindakoa.

Ane Cuesta Monge zuzendariaren filma 'Laburbiran' ikusteko aukera egongo da

Asko falta da? filmaren grabaketa. **Ane Cuesta**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Laburbira ekimenak 20 urte beteko ditu aurten eta Aiaraldeko lan bat egongo da antolatzaileek hautatutako zazpi filmeen artean. Ane Cuesta Monge zollotarraren *Asko falta da?* pelikula laburra izan da aukeratu dutena eta zuzendariak poztasunez hartu du: "Banatzaile batekin egon gara lanean, baina jaialdi bakarrean hautatu zuten pelikula. Behin banaketa enpresarekin hitzarmena amaituta, ikusi genuen Laburbiran parte hartzeko epea ireki zutela eta izena eman genuen. Pozik gaude hautatu gaituztelako eta aukera bikaina izango delako gure lana Euskal Herrian ezagutzera emateko".

Aipatu behar da Laburbiraren 34 emanaldi egongo direla hurrengo asteetan Hego Euskal Herriko hainbat txokotan.

Film laburrari dagokionez, gai arantzatsua jorratzen du, gertakari batean baitago oinarrituta. "Apur bat fikzionatu badugu ere, jazotakoa islatzen du. Alegia, neska bat asteburu pasa joan zela bere lagun batekin eta ezezagunak ziren mutil batzuekin eta bortxatu zutela", argitu du zinemagileak.

Crowfundinga

Ane Cuesta Mongek diru bilketa abiatu zuen *Asko falta da?* egiteko. Soinua, etalonajea eta antzezleei ordaintzera bideratu zuten lortutako dirua. Aintzat hartu beharra dago proiektura batu ziren aktore batzuk Go!azen telesaioan agertzen zirela eta boluntario lanetan aritu arren, profesionalak direla. Soberan geratu zen dirua enpresa banatzaile baten zerbitzuak kontratatzeko baliatu zuten.

Film berria

Zollotarra Euskal Herriko Zinema Eskolan zuzendaritza ikasten ari da eta hainbat proiektutan buru-belarri dabil: "Astebururo film labur bat grabatzen dugu".

Edonola ere, graduko amaiera lana egin behar duenez, pelikula laburra sortzen ari da orain: "Pelikulak kontatzen du neska baten lehenengo harremana masturbazioarekin. Asmoa da jaialdietan aurkeztea eta modu horretan bere ibilbidea ere egitea".

Aldiz, Laburbira amaitzean, bere ideia da *Asko falta da?* ikusgai jartzea Internet bidezko doako plataformaren batean.

Goiatz Duttok parte hartu du aurtengo Gazte Topagunearen abestiaren sorkuntza eta grabaketan

Testua
Aitor Aspuru Saez

Larunbatean Elorrion aurkeztu ostean, igande iluntzean zabaldu zuen Ernaik Orainari abestia, hau da, aurtengo Gazte Topaguneko kanta.

Egileak Süne eta Moonshine Wagon dira. Josune Arakistain Huntza taldeko abeslariaren bakarkako proiektua da Süne. Eskakizuna jaso ostean, Moonshine Wagonekin jarri zen harremanetan, Goiatz Dutto talde horretako kideak Aiaraldea Komunikabideari azaldu dionez.

Elkarlana otsailean hasi zen eta, Duttok aipatutakoaren arabera, Arakistainek ideia bidali zien eta gero Luiaondon landu zuten, hau da, Goiatzen etxean bertan. Emaitza entzungai dago, eta Arakistainen ahotsarekin batera entzun daiteke Duttoren bibolina. Laudioko musikariak gaineratu du lehen aldia dela Moonshine Wagonek bere musika soinu elektronikoekin nahasten dituela. Esperientzia "polita eta bitxia" izan dela gaineratu du Duttok. Halaber, jakinarazi du bideoklipa aurkezpenaren aurreko astean grabatu zutela.

El bus de la vida eta *Deviant* filmak garabatzen ari dira egunotan Urduñan eta Amurrion, hurrenez hurren. Errodajeek akotre ospetsuak ekarri dituzte eskualdera, tartean, Dani Rovira.

Zinema produkzio handien eszenatoki da Aiaraldea egunotan



El bus da la vida filmaren grabaketa Urduñan. **Radio Llodio, Aiaraldea.eus**

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Zinema zaporea du Aiaraldeak azken asteetan. Gaur gaurkoz bi dira eskualdean ekoiztetxe desberdinak Amurrion zein Urduñan filmatzen ari diren produkzioak.

Dani Rovira Urduñan

Ibon Cormenza zuzendariaren *El bus de la vida* pelikularen eszenatoki bilakatu da Urduña. Arcadia Motion Pictures eta Pachamama IAE ekoiztetxeak dira lanaren bultzatzaileak, eta akotre lantalde ezaguna ari da parte-hartzen bertan, tartean, Dani Rovira edota Go!azen telesaileko zenbait aktore.

Dani Rovira da Cormenzanaren istorioko protagonista nagusia. Rovira musika irakasle madrildar baten paperean sartuko da. Musikari ospetsu izatera iritsi ez eta Bergarako Ubera auzora joko du bizitzera, Bergaran bertan musika eskolak emateko asmoz. Gipuzkoako herrira iritsi bezain laster minbizia diagnostikatuko diote, ordea.

Premisa goibel horretatik abiatuta, Cormenzanak istorio argitsu bat sortu nahi du, musikalaren generoa ere landuko duena.

Pelikularen eta grabaketaren nondik norako gehienak sekretuepan ari dira eramaten. Ekoiztetxeen asmoa da apirilean prentsaurreko bat eskaintzea proiektua jendaurrean aurkezteko. Bien biatertean, urduñarrek aktore famatuekin egin beharko dute elkarbizitza.

***Deviant* filma Amurrion**

Amurrio, aldiz, *Deviant* filmaren kokaleku nagusia izango da. Kevin Iglesias amurrioarra da pelikularen ekoizle nagusietako bat eta azken egunetan Cola de Gallo tabernan grabatzen aritu dira. Taberna ezaguna ez da udalerrian aukeratu duten eszenatoki bakarra; Villa Fe etxean edota azoka zaharrean ere arituko dira filma grabatzen. Hilabetea emango dute Amurrion eta aurrekontuaren %30 inguru herrian geratuko da. Hau da, 50.000 euro baino gehiago. Egitasmoak Amurrioko Udalaren, Eusko Jaurlaritzaren, Arabako Foru Aldundiaren eta Vital Fundazioaren parte hartzea dauka eta Burubio Kultur Elkartea ere laguntzailea da.

Alain Hernandez, Fernando Albizu, Gorka Aguinagalde, Susana Soleto, Lander Otaola, Gaston Haag, Usue Alvarez, Urko Olazabal eta Inge Ugarte dira pelikulan agertuko diren akotreetako batzuk.

Deviant zitak lortzeko aplikazio bat erabilita neska gazte bat ezagutzen duen gizon ezkondu baten istorioa konatatzen du. Neskaren etxera iristerakoan, haren aita izango du zain eta protagonista bahituko du, alabak pairatutako abusuengatik mendeku hartu nahian.

Esti Urresolaren lana Laudion

Esti Urresola zinemagile laudioarraren lanari ere aitortza egin dio KulturLabek. Zumalakarregi etorbidean horma-irudia jarri dute, Urresolaren *Cuerdas* film laburrari erreferentzia eginez.

PROGRAMAZIO ETA PENTSAMENDU KONPUTAZIONALAREN IKASTAROA
AMURRION

Info + :

- **16-65 urte** bitarteko pertsonentzat.
- Aldez aurreko **ezagutzarik gabe**
- **Online** eta **aurrez aurrekoa.**
- **Apirilaren 17tik aurrera.**
- **Ikastaroaren aurkezpena:** martxoaren 30ean, 18:00etan Amurrio Bideanen.

ToolboX academy
AMURRIO BIDEAN GARAPEN AGENTZIA

945 89 17 21 / empresa@amurriobidean.org

kultura

“Mundua nola ikusten dugun adierazi dugu diskoan. Letrak pertsonalak bezain kritikoak dira”

GARAZI SANTACRUZ LIZASO (Orozko, 2000) BETI EGON DA MUSIKARI LOTUTA. UNEOTAN B.O.T.H. TALDEAN DIHARDU, DOINU HARDCOREA, PUNKA ETA MELODIKOEI AHOTSA ETA GORPUTZA JARTZEN.

Testua eta argazkia
Izar Mendiguren Cosgaya

Hardcorea eta punk melodikoa uztartzen dituen B.O.T.H. musika taldean zabiltza. Nola sortu zenuten proiektua?

Berez, Zaloako jaietarako bertsio talde bat egin nahi nuen 2019an, eta horrela sortu zen ideia: Beñat baterijoleari komentatu nion eta lagun talde bat batu ginen.

2019-2020 inguruan koronabirusa etorri zenez, kolokan geratu zen proiektua. Alabaina, uda horretan aurrera jarraitzeko geratzea erabaki genuen, eta bertsioetatik harago, abesti propioak egiten hasi ginen. Horrela sortu zen taldea, 2020ko irailean.

Laukotea zarete. Nola definituko zenuke egiten duzuen musika?

Letrak pertsonalak bezain kritikoak dira. Alor ezberdinetako errealitateei eta injustiziei idatzi diegu: errefuxiatuak, langileria, errepresioa... Nahiko metaforikoak diren arren, ondo ulertzen da mezua. Mundua nola ikusten dugun adierazi nahi izan dugu diskoan: itxuraren garrantzia, sare sozialetan egiten den esposizioa... Guzti horrek asko eragiten du gizartean eta gugan ere.

Esaterako, errefuxiatuen kantan, hiltzailea gizartea ere badela adierazi nahi izan dugu, oztopoak guk ere jartzen ditugulako. Pertsonaletik ere badu diskoak, beste kantu batek gure parranda islatzen baitu. Lagunekin egotea ere bada defendatu nahi duguna.

Diskoa grabatzen zabiltzate...

Kantu propioekin kontzertu osoa egitea da gure asmoa. Diskoa grabatzen hasi ginenean gure 7 abesti genituen jada, baina orain beste 2-3 gehiago dauzkagu. Hala ere, zuzenekoetan beti ditugu bertsioak, gure kantak oso biziak eta laburrak baitira. Gure abesti guztiak euskaraz dira, baina bertsioak denak ez. Grabaketa prozesua luzatu zaigu, baina udarako nahiko genuke diskoa izatea. Sare sozialetara ere igoko dugu, baina presentzialki ere nahi ditugu ale batzuk.

Gure asmoa urte honen amaierarako zuzeneko osoak gure abesti propioekin gauzatzea da, betiere guretzat ohikoak bilakatu diren bertsio batzuk mantenduz.

Zelan joan da zuen hasiera bira?

Lehen kontzertua Arrigorriagan izan zen, 2021eko udan, hilabete kulturala osatu baitzuen Soinuarri musika elkarteak. Ostegunero bi kontzertu egoten ziren, baina COVID-19 garaia zenez, jendea eserita eta musukoekin zegoen. Batez ere, Hego Uribetik mugitu

“Mundu mailan emakume erreferente asko daude, eta pausoak eman behar ditugu”

gara. Egindako irteera luzeena Urretxura izan da, HezurreFest festibalean. Enkarterrietan ere aritu gara: Gueñesen, Basaurin... Aiaraldean Garrastatxun bakarrik jo dugu oraindik.

Zuzenekoetan, zer da transmititu nahi duzuena?

Gurekin ondo pasatzea. Batzuentzat, nahiko estilo zaila da gurea: bateria oso arin doa, baina ahotsa ulertu egiten da. Gugaz disfrutatzea, parte sentitzea nahiko genuke.

Non entzun edo topa liteke zuen lana?

Instagram kontua dugu. 2021eko zuzenekoen zati batzuk daude hor, nahiz eta asko aldatu garen. Izan ere, ez da berdina jendaurrean eserita edo oholtza handian jotzea, edo taberna batean. Edozelan ere, ohitu gara eszenatoki ezberdinetan jotzera: Bagatzan (Barakaldon) oso oholtza handian aritu ginen, Ugaon taberna giro txikian... Egokitzen jakin behar da.

“Gure helburua ez da Gaztean egotea, gozatzea baizik. Talde txikia asko daude oso onak direnak, eta zabaltzeko oihartzunik edo aukerarik ez dutenak”

Zergatik diozu zuen estiloa ez dela ohikoa?

Gazteria beste estilo batzuetara ohitua dago. Ni beti izan naiz nahiko ‘rockerilla’, ‘makarrismoa’ gustatu zait. Parranda testuinguruan bai, baina bestela ez gara mugitzen regetoia eta beste arlo horietan. Horregatik piztu zitzaigun zerbait ezberdina egiteko nahia. Gainera, emakumea izanik, eta taldeko ahotsa; bestelako erreferentziak izatea ere inportantea da.

Gazteak estilo zehatz batzuetan zentratzen dira: ez dago estilo zabalik, eta horrek pena ematen dit. Gure helburua ez da Gaztean egotea, gozatzea baizik. Baina talde txiki asko daude oso onak direnak, eta zabaltzeko oihartzunik edo aukerarik izan ez dutenez, bidean geratzen dira.

Trikitixarekin ere ikusi zaitugu sarri...

Ahizparekin erromeria giroan jarraitzen dut, bai. Batzuetan hirukote gisa aritzen gara, kajoiarekin abesteko kantak jotzen.

Taldeko emakume bakarra zara, ahots nagusia. Nola ikusten duzu musika eszenan emakumeen lehen lerroratzea?

Geroz eta gehiago gara, arlo ezberdinetan, gainera. Nik beti ikusi izan ditut emakumeak abesten, baina nahiko melodiko edo erromeria testuinguruetan. 70. hamarkadan talde asko zeuden emakumeenak, niretzat erreferenteak izan direnak. Hala ere, gure estiloan ez dira asko ikusten, baina egon bagaude, adibide gisa The Baboon Show taldea izango genuke. Zuriñe Hidalgorekin batera, Hesian estiloko asko sortu ziren; baina trikitixatik kanpo ez gara asko ikusten.

Mundu mailan erreferente asko daude, eta aurrerapausoak eman behar ditugu. Nik mundu guztia animatzen dut nahi duena egitera, eta gogoko duen estiloarekin aurrera jarraitzera.

kirola

Larunbatean hasi zen Aiarako Birako XXXIII. edizioa eta eskualdeko txirrindulariek parte hartze positiboa izan zuten. Hain zuzen, Iker Colmenero bigarren sailkatu zen lehen etapan eta bosgarrena da sailkapen orokorrean. Aiara Txirrindularitza Elkarteko taldea, gainera, bigarrena da.

Iker Colmenerok parte hartze bikaina izan du Aiarako Biraren lehen bi etapetan

Azken unera arte lehiatu zen Colmenero Arespalditzan garaipena lortzeko. **Aiarako Bira**

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Larunbatean hasi zen aurtengo Aiarako Bira Arespalditzan. Arratsaldean egindako etapa Iñaki Isasiren omenaldiarekin abiatu zuten, berak moztu baitzuen zinta. Halaber, Estela Dominguez eta Jose Antonio Mur gogoratu zituzten, minutuko isilunearekin.

Behin lasterketa hasita, erorketa txikiak gertatu ziren eta azken birara arte lehiaketa nahiko pareko mantendu zen. Azken txanpa horretan, zortzi txirrindularik egin zuten ihesaldia eta Adrian Prieto irabazlearen ostean Iker Colemenero Aiaraldeko kirolariak zeharkatu zuen helmuga. Horri esker, bigarren kokatu zen sailkapen orokorrean eta mendiko zein Arabako maillotak jantzi zituen.

Igandeko hitzordua Amurrion izan zen eta hasiera mugitua izan zen berriro, erorketak egon baitziren. Ondorioak ez ziren larriak izan, baina artatu behar izan zituzten eroritako txirrindulariak.

Etaparen erdian, Iker Colmenerok eta beste txirrindulari batzuek ihesaldia abiatu zuten, emaitzarik gabe. Azken biran, ordea, Daniel Ladok eta Hector Fernandezek tropela atzean utzi eta 20 segundoko abantaila sortzea lortu zuten. Ladorena izan zen garaipena. Iker Colmenero izan zen berriro hoberen sailkatu zen aiaraldearra. Zazpigarren heldu zen eta bosgarren kokatu da sailkapen orokorrean. Ion Eguiak ere emaitza onak eskuratu ditu eta hamabosgarrena da sailkapen orokorrean. Aiara Txirrindularitza Elkarteko taldea (Luyando Opticos Ganzedo) bigarrena da momentuz sailkapenean.

Espainiako Estatuko hainbat txokotatik etorritako 32 klubek hartzen ari dira parte Aiarako Biraren XXXIII. edizioan; 200 kirolari guztira

Lau etapa aurretik

Laudio, Okondo, Artziniega eta Maroño bisitatuko ditu Aiarako Birak datozen egunetan. Horien artean, martxoaren 18an Laudion jokatuko den erlojupekoa izango da berritasun gehien bilduko dituen jardunaldia.

Lasterketaren historian lehenengo aldiz banakako erlojupeko proba egingo dute.

Txirrindulariek %11ko desnibela duten igoerei egin beharko diete aurre, 2,3 kilometroko ibilbidean. "Etapa honek txapela irabazteko hautagaiak hautatuko ditu", adierazi dute antolatzaileek.

Martxoaren 19ko Okondoko etapak, aldiz, exijentzia maila zertxobait igoko du, 1.186 metroko desnibela batuko duten sei igoera garrantzitsurekin. Azken-aurreko jardunaldiak Artziniegako kaleetako harrizko zoladuran jarriko du lehiaren epizentroa, martxoaren 25ean.

Azken jardunaldia Maroñoko urtegian amaituko da, "paraje paregabe batean". Martxoaren 26ko jardunaldia "etapa nagusitzat" jo dute antolatzaileek. "Liderrari erasotzeko ibilbide bat badago, hau da", adierazi dute antolakuntzatik. Txirrindulariek Askargan, Las Chozas eta Beotegiko gainetatik igaroko den 57 kilometroko luzera eta 1.186 metroko desnibel positiboa duen ibilbideari egin beharko diote aurre txapela nork eramango duen ebatzi aurretik.

Ospe handiko kirol-proba

Edizioz edizio kadete-mailako prestigio handiko lasterketa bilakatu da Aiarako Bira. Horren adierazle dira Espainiako Estatutik etorritako dozenaka taldeak. Aurten 32 txirrindularitza klub ari dira parte hartzen lasterketan, 196 txirrindulari guztira.

Horien artean dago, adibidez, Kanariar Uharteetatik etorriko den Gran Canaria Bike Team taldea.

babestutako edukia

2023ko PAZKO ASTEA

Zientziaz udaberriari kaixo

FAKTORIA LABORATEGI BIHURTUKO DA!

Gure mundua deskibritzeko beste modu bat.
Zientzia deskubritu eta gozatzeko espazio askea. Gurekin jolastu nahi?

- **ORDUTEGIA**
  9:00-13:00
- **DATAK**
  Apirilaren 11tik 14ra
- **TOKIA**
  FAKTORIAN
- **ADINA**
  2011-2020 urte bitartean jaiotako haurrak
- **PREZIOAK**
  Bazkideak: 50€
  Ez-bazkideak:60€

IZEN EMATEA

Leku mugatuak daude eta izen emate ordenaren arabera gordeko dira plazak.
Ez da dirurik bueltatuko, behin matrikula eginda, txanda hasi baino 5 egun lehenago bertan behera uzten bada izen ematea.

TELEFONOZ 693 85 53 12 (Aritz) 9:00etatik 13:00etara eta eta 17:00etatik 20:00etara

INTERNET BIDEZ
www.labur.eus/zientziafaktoria2023

*Aiaraldea Ekintzen Faktoriako bazkide egiteko informazioa izen ematearekin eskuragarri.

kirola

ATLETISMOA

Itxaso Escondrillasek urrezko eta zilarrezko dominak lortu ditu Espainiako Master Txapelketan

Itxaso Escondrillas txapelketan. **Runonlinetv**

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Iragan asteburuan izan zen Espainiako Master Txapelketa Antequeran (Andaluzian), eta bertan lehiatu da Itxaso Escondrillas Azkunaga. 1.500 metrotan bigarren postua eskuratu zuen atleta laudioarrak, eta urrezko domina 800 metroko modalitatean.

'Hemen eta orain' izan da azken hilabeteetan gehien errepikatu dudan esaldia", kontatu du Escondrillas Azkunagak sare sozialetan, "Prozesu osoan zehar gozatu dut, eta konfiantza izan dut pista estalira inoiz baino indartsuen, azkarren eta finen iristeko; baina, batik bat, inoiz baino zoriontsuago".

Zorioneko sentitzen da, haren hitzetan. Hala, etxeko guztiak izan ditu gogoan dominak eskutan izan dituenean ere. Ahizpak -Aitziber eta Eguzkiñe Escondrillas- ere izan ditu ahotan, bere erreferente direla azpimarratuta. Azkenik, Javier Abad Sebastianen lana eta babesa goraipatu ditu.

ESPELEOLOGIA

Takomano taldeak irabazi du Mendiko Lagunak Beka, 'Fuente suso' barrunbeak ikertzeko

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

"2023ko 'ML beka' Takomano Espeleo Taldearentzat izan da! Urte honetan Quincoces de Suso herrian dagoen Fuente Suso (QS1 - QS2) sistema gisa identifikatutako barrunbearen esplorazio eta dokumentaziorako proiektuan zorterik onena opa diogu", adierazi dute sare sozialetan Mendiko Lagunak elkarteko kideek. Webgunean bildu dituzte proiektuaren nondik norakoak. Udazkenean irekitzen du mendi elkarteak beka eskuratzeko deialdia, eta aurkeztutako proiektuen artean bat aukeratzen dute diruz laguntzeko. 2022an, esaterako, Tasio Martin alpinista urduñarrak eskuratu zuen laguntza, Indian Zanskar espedizioa burutzeko.

GIMNASIA

400 gimnasta elkartuko dira larunbatean Bañuetan

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Hamalaugarrenez antolatuko du herriko gimnasia erritmikoko klubak txapelketa. Martxoaren 18an izango da hitzordua, larunbatean, goizez eta arratsaldez.

Lehenbiziko txanda 10:00etatik 14:30era izango da, eta bigarrena 15:00etatik 20:00etara. Guztira, 9.5 orduko lehia bizia egongo da kiroldegian, 400 gimnastak hartuko baitute parte.

Gainera, probintzia anitzetatik etorriko dira. Hego Euskal Herriak izango du ordezkaritza gehiena, arabarrak, bizkaitarrak eta gipuzkoarrak gehituta. Alabaina, Errioxatik eta Kantabriatik (Espainiako Estatua) ere bertaratuko dira klubak, aurreratu dutenez. Bizkaitarrek izango dute ordezkaritza handiena: 13 talde.

Arabatik 9 talde lehiatuko dira Aresketa, Argitzal, Bagare, Beti Aurrera, Beti Ritmica, CD Bizirik, Itzal, Ignium, Stormy eta Vita-flumen. Gipuzkoatik Ordizia eta Tolosa hurbilduko dira, Kantabriatik EDM Torrelavega, eta Errioxatik Arnado eta Santo Domingo de la Calzada.

11 PROIEKTU,
11 LAN ESKAINTZA

FAK TO- RIA

KULTUR KUDEATZAILE ETA PROGRAMATZAILEA

KUL TU R - Kultura

%50EKO LANALDIA: 20 ORDU ASTEAN.

PUBLIZITATE ETA KOM. ZERBITZUEN SALTZAILEA

KO MU NI- KA / AIA RAL DEA - Komunikazioa

%50EKO LANALDIA: 20 ORDU ASTEAN.

EKONOMATU KOLABORATIBOKO DINAMIZATZAILEA

EKO NO- MA- TUA Elikadura

%50EKO LANALDIA: 20 ORDU ASTEAN.

ARGITALPENEN BANATZAILEA

KO MU NI- KA / AIA RAL DEA - Komunikazioa

%33KO LANALDIA: 50 ORDU HILABETEAN.

IKUS-ENTZUNEZKO ETA SOINU TEKNIKARIA

FAK TO- RIA Komunikazioa

%62,5EKO LANALDIA: 25 ORDU ASTEAN.

> Lanaldia **handitzeko** aukera dago.
> **Kurrikuluma** bildaltzeko epe muga: **martxoak 26, igandea**
> Kontratazio hasiera: **apirila**.

INTERESDUNEK
IDATZI: **faktoria.eus/gurekin-lan-egin**
edo DEITU: **688 625 366**

INFO + :

herriko plaza

Izei

Zorionak txapeldun! Dagoeneko hamarkada bat, IZEI! Segi zaren bezain handi izaten! Muxu pila!

Etxekoak

Iera

Jarraitu bulegoari distira ateratzen! Gora San Patrick!

O'Factory

BIDALI ZURE ZORION AGURRA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Martxoaren 29an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

Denborapasak

ERRAZA

		6	3					7
		8	6	5			9	
2	1		7	4	9			8
				3				
			4	8	6		7	
8	3	5		9		2		
5		7			3			6
			8			4		
			2					5

OSO ZAILA

1	4		3			7		
8								
	6				1			
	1		7				2	
3		4	8		5		9	
							1	
4		6				8		
		5			3	1		
			4		2			

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak

Zozketa

Errigoraren udaberriko kanpainako produktuen zozketa egingo du Aiaraldea Komunikabideak

Errigorako produktuen zozketa
Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus atarian **Zozketaren data:** Martxoak 17, 15:00etan.

KOKORIKO

IRAKURKETA GUNEA



HAMAIKA ANDERE AUSART

Idazlea: Oli
Ilustratzailea: Helle Thomanssen
Argitaletxea: Pamiela-Kalandraka

Hamaika andere bidaia liluragarriak egiten hasiko dira. Emakume abenturazale eta ausartak dira, kultura eta egoera ezberdinetatik pasako direnak.

EMARIAK

Idazleak: Nerea Uria eta Ilazki Gainza
Argitaletxea: Kalaka Kooperatiba

Emakumeak erdigunean jartzea helburu duen liburua da. Hamabi emakumeren bizitza kontatzen digu. Emakumeak erdigunean jartzea du helburu liburuak, horregatik APP bat eta karta jolas bat ere atera dute liburua indartzeko.

JOLAS GUNEA

UDABERRIA LAGUN!

Martxoan gaude, duela aste batzuk, aratusteen inguruan, joale eta makilekin Amalurra esnatzera gonbidatu genuen. Amalurra bere neguko loalditik ateratzen ari da eta udaberriarekin batera indartsu etorriko zaigu berriz.

Ondo esnatzeko, Amalurrak eguzkiaren presentzia handiagoa behar du eta horregatik Ekhik lekua lapurtzen dio llargiri. Gaua geroz eta laburragoa, eguna geroz eta luzeagoa.

Geroz eta argi gehiago izanda, orduan eta aukera gehiago zabaltzen dira kalean jolastu ahal izateko. Gainera, udaberriak, oraindik ere baditu klima aldetik ezaugarri oso interesgarri batzuk jolastu ahal izateko. Eguzkiak berotu dezake, baina baita euri zaparrada egin ere.

Hauek dira udaberrian garatu daitezkeen ekintza batzuk, haurraren garapenean interesgarriak izan daitezkeenak eta familian gozatzeko baliagarriak izan daitezkeenak.

UDABERRIA ETA URA: Urarekin hainbat ekintza egin daitezke. Udaberrian euria egiten duen arren, ez du hainbesteko hotzik egiten eta euripean edo euria egin ondoren putzuekin jolastu daiteke. Putzuetan salto egin daiteke edo harriekin eta makilekin presa bat egin putzua beste nonbait bideratuta. Hostoak txalupa gisa kokatu daitezke baita ere. Ura eta lurra nahastua lokatza sortzen da eta lokatzarekin hamaika jolas egin daitezke.

UDABERRIA ETA NATURA: Udaberrian hasten dira loreak eta zuhaitzen hostoak ateratzen. Hosto eta lore hauek aurkitzera jolastu dezakegu, eta modu horretan identifikatzen ikasi dezakegu. Naturan sortzen diren usain berriak, zarata berriak edo textura berriak gozatzera ere jolastu daiteke. Zentzumenekin gozatu daiteke udaberrian.

Amalurrek aukera ugari ematen dizkigu, kalera atera eta gozatu inguruan egon daitezkeen parajeez.

KOKORIKO
HEZKUNTZA FAKTORIA

KOKORIKO

HEZKUNTZA FAKTORIA

Zer da?

Bizi garen jendarte heteropatrialkalean izugarrizko beharra dugu jendea kalifikatzeko, batez ere haurrak jaio bezain pronto, eta jaio aurretik ere, emakume edo gizon kategorietan ixteko beharra dugu.

Haurdun zaudela esatean, jendartearen lehenengo galdera da etorriko den pertsona hori, ea zer ote den. “Maitia, pertsona bat da ez da krokodilo bat, nik dakidala”, ematen du pertsona horren genitalek definitzen dutela soilik, horrela bi kategoria oso estandarretan kokatzen dira haurrak. Jaio berria kalera ateratzean ere edozein pertsonaren lehenengo galdera berdina da. Beharra dago kutxa itxi eta mugiezin batean sartzeko, espektatiba eta genero rol bereiziez betetzeko.

Genero rolak ezartzen dizkiegu haur horiei hasiera-hasieratik. Egoera horretatik apur bat askatu nahi izatekotan traba eta arazo askorekin aurkitu zaitezke. Lehendabizi sistemaren trabak, ezin baituzu haur hori generorik gabe inskribatu. Izenekin ere, neutroak dauden arren, ezin duzu zuk nahi duzuna jarri.

Traba instituzionalak atzean utzita, jendartearen begiradak, galderak, daude gero. Familiek haur horren sexu biologikoa esan gabe hezi nahi arren, jendeak haurra begiratzen duenean berak ezartzen dio genero bat: “Bai nik argi dut neska aurpegia duela”.

Gero etorriko dira ere dendetara joatea eta arropa guztia binarismo horretan ondo bereizia topatzea, kartel handiekin ez gaitezen okertu eta zakila duen haur bati loreak jarri.

Hizkuntzak ere hamaika traba izaten ditu, eta bai, euskarak ere baditu. Adibidez, asmatu gabeko hitzak erabili beharko genituzke generorik gabe anai-arreba, lehengusin... aipatzeko.

Azkenik, haur horrek jaso dezakeen jazarpena dago, hasieran sutila eta gero bortitzagoa, bere generoari lotua ez doazen jarrera, arropa edota rolak hartzen baditu.

Gure buruetan “klik” bat egin dezagun eta has gaitezen pentsatzen haurren hazkuntza zelan egin daitekeen beste modu batean, normatik ateratzen den horrek presio bikoitzik ez izateko.

AIARALDEKO HEZKUNTZA FAKTORIA

Irudi engainagarriak



Hamar txatal hauen artetik erdiak (5) irudi nagusitik hartuta daude eta beste erdiak ez. Bereiz itzazu.

Sudokua

Z		H		K	
	I			Z	H
A		I			
	H		I		T
	K			T	
H			K		A

Liburuetan HITZAK aurkitzen dira, ezta? Bete hutsuneak hitz hori osatzen duten hizkiak (H, I, T, Z, A eta K) toki egokian jarriz. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

Aldea dago!

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. 13 dira guztira.

SOLUZIOAK

Kontra

Mundutik Aiaraldera

Maria Aragoneses

JAIOTERRIA
MADRIL (1994)

BIZILEKUA
BILBO

BIDAIAREN XEDEA
MEDIKUNTZA IKASI ETA ERRESIDENTZIA EGITERA ETORRI ZEN LAUDIOKO OSASUN ZENTRORA

"Medikuntza komunitarioak duen garrantziaz ohartuz goaz, baina bide luzea dugu aurretik"

Medikuntza ikasi eta erresidentzia Laudion egitea erabaki zenuen, nolatan?

Madrilekoa naiz, eta bertan egin nuen karrera. Familia medikuntzan espezializatu nahi nuen, eta argi neukan erresidentzia iparraldeko landa-eremuko zonalderen batean egin nahi nuela. Bilatzen hasi eta Laudio zen nire nahiei hobekien egokitzen zen aukera. Ingurune natural batean kokatuta dagoen herrigune industriala, landa-eremua eta hiria nahasten diren tokia. Aukera paregabea zen.

Nondik datorkizu grina hori?

Nire aitona herriko medikua zen Segovia inguruan. Herriz herri ibiltzen zen pazienteak artatzen. Ni noizbait bere kontsultan izan nintzen, eta oso polita iruditu zitzaidan egiten zuen lana eta herritarrekin zuen harremana.

Ni Madrilen hazi naiz, hirian bertan. Oso harreman gutxi izan dut landa-eremuarekin. Erromantizatuta neukan agian, baina probatzeko gogo handia nuen eta hona etortzera animatu nintzen.

Bete ditu zure espektatibak?

Zeharo, nituen espektatiba guztiak bete ditu. Bilatzen nuen guztia aurkitu dut Laudioko osasun zentroan; dispertsio geografikoa, baserrietan isolatuta bizi diren aitona-amonak, herrigunean bizi diren herritarrak... Bizi kalitate ona dago hemen. Uste dut herritarrek naturarekin duten harreman estuagatik dela hori. Mugimendu sozial oso zabal eta interesgarria ezagutu dut ere. Espero ez nituen gauzekin ere egin dut topo. Prekarietate maila altua dago hemen: enplegu falta, etxebizitza aurkitzeko zailtasunak... Alkoholismoarekin ere arazo larria dagoela ikusi dut, pertzepzio sozial batetik harago, arazo errealada. Arrazismo ikusi dut ere, hori ez zait batere gustatu.

Proiektu komunitarioetan egon zara sartuta.

Okondoko eta Orozkoko osasun zentroetan erorikoen prebentzioaren inguruko saio bat egin genuen pazienteekin. Asko gustatu zitzaidan esperientzia, eta medikuntza komunitarioaren garrantziaz ohartzeko balio izan zidan.

Geroztik, medikuntza komunitarioa sustatzeko lanean aritu naiz Laudioko osasun zentrotik. Herriko emakume talde batekin proiektu komunitario bat garatzen hasi gara, besteak beste. Uste dut osasun sistemaren ardatzetako bat izan behar dela komunitatea, ezin dugu espero osasuna norbanakoarengandik etortzea. Horrelako egitasmoak garatzeko oso baldintza onak daude hemen, herritarrak eta eragileak saretzea da gakoa. Gutxika ohartzen ari gara medikuntza komunitarioak duen garrantziaz, baina bide luzea geratzen da oraindik. Medikuak saturatuta daude, ez dute horrelako proiektuak garatzeko denborarik eza baliabiderik ere ez. Egon dira esperientzia batzuk, baina oraindik ez dago instituzionalizatuta.

Zer asmo duzu etorkizunean?

Orain praktikak egiten ari naiz Galdakao-Usansoloko ospitalean, baina aurki bueltatuko naiz Laudiora. Oraindik hiru urte geratzen zaizkit erresidentzia bukatzeko; horrek Laudioko osasun zentroa gehiago ezagutzeko eta proiektu desberdinak gauzatzeko aukera eskainiko dit. Erresidentzia bukatzean, inguruan geratzea gustatuko litzaidake. Oso gustura nago hemen, inguru atsegin batekin egin dut topo, eta lan egiteko bilatzen ditudan baldintza guztiak betetzen ditu.

MADRIL

DESKRIBAPENA
Espainiako Estatuko hiribura da, Espainiako Gobernuaren eta Gorteen egoitzak daude bertan. Ekonomia, finantza eta industria gune garrantzitsua da, eta Europar Batasuneko hirugarren metropolirik handiena osatzen du. Hiriak jatorri musulmana du. Hauek *Mağrīţ* izeneko hiria sortu zuten IX. mendean.

AZALERA
604,45 kilometro koadro.

BIZTANLEAK
3,28 milioi biztanle.

HIZKUNTZAK
Gaztelania da hizkuntza ofiziala.

Argitaratzailea: Aiaraldea Kooperatiba Elkartea
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus agenda@aiaraldea.eus erredakzioa@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioia, Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:
Sofia Cisneros, Aitziber Alava, Josu Zabala, Iraia Pereiro, Genma Corbella, Endika Arribas, Christian Alemany, Gartzen Garaio, Aitor Fernandez, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Jabi Asurmendi, Lander Ria, Xabi Ugalde Alberto Gutierrez, Eunate Ekhiñe

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

orozko · Urduña Orduña · Artziniegako Udala · ausolan · ARRANKUDIAGA ZOLLO UDALA · Aiarako Udala Ayuntamiento de Ayala · Arakaldo · grafik.eus Telleria 2, Laudio, Araba 94 672 65 43 info@grafik.eus · OKONDOKO UDALA · LAUDIO UDALA AYUNTAMIENTO DE LLODIO · AMURRIO · araba álava foru aldundia diputación foral · EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA